

**EIBARKO AGIRRE MEDIKUAK**  
*Hiru mende medikuntzan*  
*(1860-2006)*

**LOS AGUIRRE DE EIBAR**  
*Tres siglos de medicina*  
*(1860-2006)*

**ANTXON NARBAIZA AZKUE**

EIBARKO UDALA - AYTO. DE EIBAR  
EGO IBARRA BATZORDEA

EIBAR, 2006

**EIBARKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE EIBAR**

**EGO IBARRA BATZORDEA - COMISIÓN EGO IBARRA**

EIBAR 2006

Todos los derechos reservados. Esta publicación y los documentos gráficos contenidas en la misma, no pueden ser reproducidos, ni en todo ni en parte, ni registrados en, o transmitidos por un sistema de recuperación de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sin el permiso previo escrito del Ayuntamiento de Eibar, y del autor. El editor no se responsabiliza de las tesis reflejadas por el autor.

Eskubide guztiak gordeta daude. Liburu hau eta bertako argazki bat bera ere ezin da inon berragertu, ez zatika ez osorik. Liburu hau ezin da inon erregistratu eta bertan agertzen diren argazkiak zein idatziak ezin dira informazioa batzeko sistema batean jaso; inongo formatan. Hori egin nahi duenak, derrigorrezkoa du Eibarko Udalaren baimen idatzia eta egilearena eskuetan izatea. Editatzaileak ez du bere gain hartzen egileak islatutako iritzirik.

**EIBARKO AGIRRE MEDIKUAK**

Hiru mende medikuntzan (1860-2006)

**LOS AGUIRRE DE EIBAR**

Tres siglos de medicina (1860-2006)

© Testuena / de los textos:

Antxon Narbaiza Azkue

© Edizioarena / de la edición:

*Ayuntamiento de Eibar / Eibarko Udala; Comisión Ego Ibarra Batzordea*

Fotokonposaketa eta Inprimaketa:

Michelena Artes Gráficas S.L.

Pº Ubarburu, 54 - Polig. 27 (Martutene)

Astigarraga (Gipuzkoa)

ISBN: 84-89696-43-8

Eibarko Kuadernuak: ISSN: 1576-7140

Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-438/06



Portada: *Il Saleso*, Eliseo Locci.

# Aurkibidea

Sarrera .....	Orria 13
<b>1. Bizente Agirre Gisasola, mediku belaunaldiaren hasiera</b> .....	15
1.1. Izendapena .....	16
1.2. Medikuntza jarduera .....	16
1.2.1. Gerra eta izurriteak .....	17
1.3. Ekimen politikoa: historiaren zurrunbiloak .....	20
1.3.1. 1869ko errepublikano federaziozaleen ituna .....	21
1.3.2. 1873ko Errepublikanoak .....	22
1.3.3. III. Karlistaldia 1872-1876 .....	23
1.4. Eibarko herritarren errentak .....	25
1.5. Agirre euskaltzale .....	25
1.5.1. B. Agirreren bi gutun Julio Urkijori .....	27
1.6. Heriotza .....	28
<b>2. Ziriako Agirre Alberdi</b> .....	30
2.1. Eibar: abiapuntu eta helmuga .....	30
2.1.1. Eibar: XX.mende hasierako aldaketa .....	30
2.2. Osasunaren mundua .....	31
2.2.1. Osasuna babesteko beste hiru ekimen .....	32
2.2.2. Adolfo Fundazioa: haurrentzako itsas udalekua .....	34
2.3. Agirre espetxeraturik .....	36
2.4. Ziriako Agirre politikagintzan .....	37
2.5. Debako itsas-istripua eta heriotza .....	37
2.6. Herritarren oroitzapenak .....	38
<b>3. Vicente Aguirre</b> .....	40
3.1. Ingeniari bat mediku artean .....	40
<b>4. Ziriako Agirre Errasti</b> .....	41
4.1. Haurtzaroa .....	41
4.2. Ibilbide oparoa medikuntzan .....	42
<b>5. Jose Migel Agirre Errasti</b> .....	43
<b>6. Itziar Agirre Oloriz</b> .....	44

**Los Aguirre: médicos eibarreses**

Introducción .....	47
<b>1. Vicente Aguirre Guisasola</b> .....	48
1.1. Inestabilidad política y medicina .....	49
1.1.1. El ejercicio de la medicina en el municipio .....	50
1.2. Las rentas de los eibarreses en 1889 .....	51
1.3. La vorágine de la historia .....	51
1.3.1. La asamblea de 1869 en Eibar .....	52
1.3.2. Ciudadano Aguirre. Reunión y asamblea republicana de 1873 .....	53
1.3.3. Las tropas carlistas en Eibar. Problemas para los liberales .....	54
1.4. La filosofía existencial de Vicente Aguirre .....	55
1.5. Fallecimiento .....	56
<b>2. Ciriaco Aguirre Alberdi</b> .....	58
2.1. Una biografía dedicada a la medicina .....	58
2.1.1. Tres iniciativas llevadas a buen puerto .....	59
2.1.2. La profilaxis como base de la actuación médica .....	61
2.1.3. La colonia escolar marítima Fundación Adolfo .....	62
2.2. Aguirre y la vida pública .....	63
2.3. Aguirre encarcelado .....	65
2.4. La impronta renacentista .....	66
2.5. Fallecimiento inesperado .....	67
2.6. El recuerdo del médico .....	67
<b>3. Vicente Aguirre Guisasola</b> .....	69
3.1. Un ingeniero en tierra de médicos .....	69
<b>4. Ciriaco Aguirre Errasti</b> .....	70
<b>5. Jose Miguel Aguirre Errasti</b> .....	73
<b>6. Iciar Aguirre Oloriz</b> .....	74
<b>Eranskinak</b> .....	75
<b>1. Bizente Aguirre Gisasola</b> .....	77
1.1. <i>Tentativas</i> : liburuaren iruzkina. Gramatika .....	81
1.1.1. Hiztegia .....	84
1.1.2. <i>Tentativas</i> : Agirrereren helburua .....	98
1.1.2.1. Agirrereren hizkuntza ikuspegia .....	98
1.2. Aguirre: perseverancia en la idea .....	101
1.3. Medikuairen soslaia .....	102

	Orria
1.4. “La labor de un médico” .....	102
1.5. Testimonios. El pacto federal republicano de Eibar .....	104
1.6. Bizente Agirrereren idazlanak .....	105
<b>2. Ziriako Agirre Alberdi: artikulua eta aipamenak</b> .....	<b>107</b>
2.1. Politikagintza .....	107
2.1.1. El mitin del viernes .....	107
2.1.2. “Comunicado de don Ciriaco Aguirre” .....	107
2.1.2.1 La Liga antigermanófila .....	108
2.2. Medikuntza .....	109
2.2.1. “De Eibar. Campaña sanitaria” .....	109
2.2.2. Crónica eibarresa. Una comunicación. ....	110
2.2.2.1. La regulación de la prostitución en el municipio .....	111
2.2.3. “Desde Eibar. La cuestión de los médicos titulares” .....	113
2.2.3.1. “Divulgación sanitaria” .....	115
2.2.3.2. “Divulgación sanitaria” (2) .....	117
<b>3. Omenaldiak</b> .....	<b>120</b>
3.1. Oroitarriaren inaugurazioa .....	120
3.1.1. “Emocionario. Honrando a un médico eibarrés” .....	121
<b>4. Vicente Aguirre ingeniaria: hitzaldiak eta mitinak</b> .....	<b>123</b>
4.1. La conferencia de don Vicente Aguirre .....	123
4.2. El mitin republicano de Elgueta .....	124
4.2.1. “Actitud republicana” .....	125



# Laburdurak

<b>E.U.A.</b>	<b>Eibarko Udal Artxiboa</b>
<b>EA</b>	<b><i>Eibar</i> aldizkaria. Revista <i>Eibar</i></b>
<b>EE</b>	<b><i>Euskal-erria</i></b>
<b>GBO</b>	<b>Gipuzkoako Buletin Ofiziala</b>
<b>GDSE</b>	<b>Gipuzkoako Diputazioaren saioen errejistroa</b>
<b>GM</b>	<b>Gregorio de Múgica, <i>Monografía histórica</i> (2ª edición)</b>
<b>LEX</b>	<b>Toribio Etxebarria, <i>Lexicón</i></b>
<b>PS</b>	<b>Pedro de Sarasketa, <i>Monografía descriptiva de Eibar</i></b>
<b>ORO</b>	<b>Mitxelena, <i>Orotariko hiztegia</i></b>
<b>TOAO</b>	<b>Tolosako Artxibo Orokorra</b>
<b>VG</b>	<b>La Voz de Guipúzcoa</b>





# Aurkezpena

Eibarren medikuntzarekin lotu litekeen deituraren bat bada, hori Aguirre abizena da.

Mende biren barna, Agirretarrek, mediku-lanari dioten maitasuna belaunaldiz belaunaldi joan dira eskualdatzen: luzea izan da Vicente Aguirrerekin hasi eta Itziarrenganaino heldu den soka. Izurriak, gaixotasunak edo gaixoei etxeetara egindako bisitak etengabeak izan dira eibartarren ongizatea zaintzera dedikatu den familia horren bizitzan.

Ez dira gutxi izango Eibarko mediku-familia horri zerbait eskertu beharrean egongo diren gure aurrekoak. Bizitza osoa medikuntzari eskainia; beti gertu beraien kontsultara joan edo larrialdiren bat zenean medikuari etxera joateko eskatzen zioten eibartar guztiak zaintzeko.

Leinu oso bat medikuntzan murgilduta, baina baita ere herriko bizimodura eta politikara sasoiak zailak zirenean. Eibarko historiaren zati diren bizitzak.

Liburu honekin Antxon Narbaizak denboran barrena ibiltzera gonbidatzen gaitu, bilakabide zientifikoa eta medikoa bidailagun ditugula: Eibarko Agirretarrak medikuen omenezko ibilbide izan bedi.

Iñaki Arriola López, Eibarko alkatea

## Presentación

Si hay un apellido en Eibar que pueda relacionarse directamente con la medicina ese es el apellido Aguirre.

Durante casi dos siglos, la familia Aguirre ha ido transmitiendo de generación en generación el amor por una profesión. Desde Vicente Aguirre hasta Itziar, el camino ha sido largo. Epidemias, enfermedades, o simples visitas a pacientes han sido la constante en la vida de una familia dedicada al bienestar de los eibarreses y eibarresas.

Pocos antepasados nuestros no tendrán algo que agradecer a esta familia eibarresa. Vidas enteras dedicadas al ejercicio de la medicina, a la atención de los eibarreses que acudían a su consulta o requerían su presencia ante una urgencia.

Toda una saga dedicada a la medicina, pero también a la vida social y política en tiempos difíciles. Vidas que forman parte de la historia de Eibar.

Con este libro Antxon Narbaiza nos invita a hacer un recorrido a través del tiempo, con la evolución científica y médica como compañeros de viaje, un recorrido que servirá como homenaje a los Aguirre, médicos eibarreses.

Iñaki Arriola López, alcalde de Eibar



**EIBARKO AGIRRE MEDIKUAK**



## SARRERA

Agirretarren biografia duzue hau, baina egia aitortu behar badugu, gure Agirretarrenaganako interesa on Bizente Agirre mediku eta euskaltzalearekin hasi zen. Halere, ez zitzaizkigun arrotz bere seme Ziriakoren bizitzaren zertzeladak. Hortik aurrera ezer gutxi. Horregatik gure harridura pertsonaien bizitzan sakontzen joan garen heinean.

Biografiaz osaturik datorren lan honek eibartarrak eta medikuak lanbidez izan ziren eta diren pertsonaiak batzen ditu. Lanbidea bat zutela, baina zaletasunak askoz gehiago, aise ikusiko duzunez lan honetan barrena murgiltzeko betarik eta umorerik baduzu. Baina beraien zaletasunak eta, oro har, beraien bizitzen zertzeladek ekarri gaituzte nagusiki lerro hauek belztera.

Egia esan, on Bizente zaharraren biografia herren legoke haren euskarari buruzko idatziak saihestuko bagenitu. Tamalez, gure lehen biografiatuaren aipamenean ikusiko dugu nola Agirre herrikidea euskaldunon madarikazio sekulakoari lotu zitzaion; XVII. mendean harako Klaberia hark esan zuena egokituz: euskarari buruz bai baina ez euskaraz jardun zuen. Deus gutxi alda zitekeela, gaurkoen ikuspegitik, edozein zelarik ere hark erabilitako hizkuntza? Demasakeriak edo bitxikeriak bitxikeriak beti, esanen luke edozein mentalitate kartesianok. Baina, beti bainak, “mainak” ez direnean, euskalgintzaren munduan, geroago ere hontaz ari gara, gure Bizentek euskaraz idatzi izan baligu gaztelaniaz idatzi zuenaren erdia, konforme ginatkeen!

Bizente Agirre ospetsu egingo zen bere herritarren artean osasuntsu mantentzeko bere formula belaunaldiz belaunaldi ezagutuko baita. Higienista sutsua, haren “Arrateko haizea eta Errotapeko bainuak” maxima gogoratuko digu Toribio Etxebarriak on Bizenteren goiburu bezala, bere *Viaje*-n<sup>1</sup>. Zelako aldaketa harrezkero! Dotore jantzita, agian bizar adeitsua aldean eta fardeltxo eskuan, bezero arretatsuaren etxe aurrean irudika dezakegu, aldaba sendoa jotzen behar bada, eta gero, ate astuna zabaltzean, zuzen gaixoaren ohe ilunerantz doazen oin urratsen hotsa, etxekoen diosalak jasotzen dituen bitartean. Berorika zuzentzen zaizkio, noski, abadeari edo udal idazkariari bezala.

Agirretarren zaharrenarekin amaitzeko esan dezagun harritu egin gaituela apur bat Bizentek izan zuen protagonismoak politikagintzan. Haren liberalismoari eta, batez ere, errepublikanismoari eginiko ekarpenak ezin daitezke bazter. Herritar zen aldetik bere betekizunak zorrotz hartzen zituela antzeman dezakezu lan honetan barrena eta, batez ere, Eranskinean itsatsi ditugun dokumentuak irakurtzeko egonarria baduzu.

Baina Agirretarren biografia multzo honek ez du soil-soilik belaunaldi honetako ordezkari zaharrena aipagai. Nola ahantz Bizenteren semea, Ziriako! Berak seguruenik espero ez zuen bizitza gorabeheratsua izango zuena, heriotza ustekabean etorri zitzaionalarik, artean gizon gordina baitzen, hainbat helburu bete gabe uzten zituela. Aitak, esaterako, astanafarri eta kolerari egin behar izan zien aurre, semeak seguruenik ohiko alborengoari eta, batez ere, tuberkulosiari, biriketari islatzen zen gaitz beldurgarriari. Baina ez zen medikua bilakatu zen seme bakarra. Hor dugu Pedro, Perikotxua, Ziriako baino hiru urte gazteagoa, eibartarren begiak artatzen jardungo zuena. Biharginen begietako txatarrak ateratzen, besteak beste.

Vicente Aguirreren izena isuri zaigu gero, isil-isilik, diogun bezala, medikuz osaturik geneukan zerrenda honetan. Aitonaren izen eta lehenengo bi deitura berberak zituen Vicente honek ingeniari izan zen eta lanbide hark seguruenik nahi ez zuen protagonismoa eman zion<sup>2</sup>. Guk baina hona bere aita eta aitonaren ideologiari jarraiki, egin zituen hitzaldi eta mitin interesgarriengatik dakarkigu.

1. *Viaje por el país de los recuerdos*, 1966 (1990: 142)

2. Agirre Gisasola biak bereizi ahal izateko, bigarren honen izena gaztelaniazko grafiaz papereratu dugu.

Eta kondaira honetan iraganetik egungora jotzen dugularik, hasieran esan duguna zehaztuz, Eibarren jaio ez baina herria hiri bihurtu zen garai hurbilagora garamatzen beste eszenatoki batera egingo dugu jauzi. Beste Ziriako bat oraingoan ere, baina gizarte oso desberdinean datorriguna bizitzaren plazara. Garai berriak dira eta orain datozkigunak medikuntza dute buru-belarriko lanbide eta bizibide. Bigarren Ziriako honek bere anaia Jose Migelek bezala, biak barne medikuntzan adituak, izen arraragoa duten gaixotasunak baina ez horregatik lasaigarriagoak ezagutuko dituzte. Giza bizitza oparoegiak omen dakartzan diabetea, heste-gaitzak, carcinoma arriskutsuak... eta beste hainbat eta beste hainbat gaixotasun. Eritasuna etorri ohi zaio maiz gizakiari bere baikortasunaren balantzan kontrajartzen zaiola.

Bizente zaharrak ia-ia Mogelen Maisu Juanen garaia harrapatuko zukeen jaiotzen zalua-go ibili izan balitz. Halere odol ateratzeak, terapia segurua bezala, edota belagileak, petriki-loak eta beste edozenbat erabilera bihurri ezagutuko zituen.

Seme Ziriakok komunikabideen garapen askoz handiagoagatik jakinen zukeen Europan zehar txertoek zekarten aurrerakuntza. Zer esanik ez haren biloba eta arestian aipatu dugun izen bereko Ziriakok gaur egun.

Oso maite zuten Ziriako zaharra Eibarren. 1933an hil zenean guraso batek baino gehiagok jarriko zion Ziriako edo Ziriaka bere seme edo alaba jaioberriari.

Gaurko Agirretar medikuak baina, bizitzaren gorabeherak, hegan eginak dira Eibartik. Bilbon jaioa bata, ozta-ozta, Argentinan bestea, Agirretarrek exilioaren zapore mikatza dastatu behar izan zuten.

Eta, oraingoz, Agirretarren gazteena, Itziar, honek ere medikuntza mundua hautatu duen larik bosgarren belaunaldiari ekin dio. Historia etorri dator eta joan doa...

Guztiek baina, duela ia berrehun urte orain bezalatsu, ezin izango dute euren maletan ezinbesteko sendagaia ahaztu: maitasuna. Maitasuna gaixoari, maitasuna lanbideari eta maitasuna ongi buruturiko langintzari.

## 1. BIZENTE AGIRRE GISASOLA: MEDIKU BELAUNALDI BATEN HASIERA

Bizente Agirre eibartar medikuak gaur egun ere medikuntzan ari den Agirretarren laugarren belaunaldiari emango dio hasiera. Eibarren jaio zen 1832ko abenduaren 28an eta bertan hil 1907ko abenduaren 29an<sup>3</sup>. Jaiotze data zehazteko arazoak izan baditugu ere, ez, ostera, familiako xehetasun gehiago ezagutzeko. Esaterako, bi anaia izan zituela, gutxienez. Zaharragoa Jose Joaquin, 1831ko apirilean jaioa, eta gazteagoa Francisco 1834ko apirilaren 9an munduratu zena. Gurasoak Agirreko Jose Antonio eta Joaquina Gisasola izan ziren. Aitaren aldetiko aiton-amonak, berriz, Agirreko Juan Bautista eta Ursula Alkorta, azken hau Mendarokoa. Amaren aldetiko aiton-amonak, Jose Gisasola eta Maria Martina Etxeberria ziren<sup>4</sup>.

### *Aita medikuaren haritik bi seme*

Agirre, ia lau urte gazteagoa zen Josefa Alberdi Albizu eibartarrarekin ezkondu zen. Batak zein bestea, Eibarren igaro zuten beren bizitza guztia. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Lau mutil eta hiru neska. Antonia da zaharrena, beste bi neskak, berriz, Ignacia eta Angela dira. Mutilen artean, Ziriako dugu nagusia, aitaren lanbideari lotuko zaiona; beste horrenbeste, oftalmologo lanetan jardungo duen Juan Pedro, “Perikotxua”<sup>5</sup>, Ameriketako bidea hartuko duen Anjel dator gero, eta, azkenik, Adolfo, gazteena, meatzetako ingeniaria. Honen haritik, eta gehiago zehaztuz, 1900eko udal-errolan Agirre-Alberdi bikotea, beren Plaza Barriko 1. zenbakian, ondoko seme-alabekin bizi dela adierazten da: Antonia, zaharrena, 31 urte, 1892ko ekainaren 9an, Jose Manso, Cadizko San Fernandotarrarekin ezkondua, artean hiru semeren guraso, Jose, Vicente eta Herminio, 7, 4 eta 2 urte, hurrenez hurren. Manso honek 39 urte zituen orduan eta artilleriako kapitaina zen lanbidez<sup>6</sup>. Plazentzian eta Eibarren lanean ari zela ezagutu bide zuen Agirretarren zaharrena. Gero Ciriaco dator, 28 urte, medikua eta artean ezkongai, Juan Pedro, ikasle, 25 urte, Ignacia, 19 urte, ez da honetaz ezer esaten lanbide edo ikasketa kontuan, Angela, 17 urte, ikaslea eta Adolfo, gazteena, 15 urte, ikaslea hau ere Murgiako herrian eta, geroago ikusiko dugunez, 1913an 28 urterekin hilgo dena. Etxeak handia behar zuen *Medikokua* deitzen zuten hura, bertan 13 pertsona bizi baitziren, Ermuko Felisa Bengoechea Izaguirre 19 urteko neskamea barne<sup>7</sup>.

Gure gizona, bizi guztian mediku Eibarren, bere lanbidez kanpo beste kezka batzuk ere izan zituen. Hurrenez hurren, politikak eta zehazki errepublikanismoak bete-betean harrapatu zuen eta ideologia hari jarraitu zion bizi izan zen artean. Bere hirugarren jardunbidea euskara izango du. Eta gure hizkuntzari buruzko hausnarketari ordu asko eskainiko dizkio bere idatzietan barrena egiaztatuko dugunez.

---

3. Datu zenbait P. Zelaiaren Eibarko historiaren laburpena lanetik jaso ditugu. Bere jaiotze datari buruz bere informazioa kontuan izan dugu, egunari dagokionez, ez jaiotze urtea, ostera, 1832an sortu baitzen, eta ez 1829an, hark dioen bezala.

4. Zehaztasun hauek Jesús Astigarraga adiskideari zor dizkiogu. Eskerrak berari.

5. Juan Pedro Agirre Alberdi, Perikotxua, 1908an mediku lanetan ari da beharrean (“Cuerpo de médicos titulares de Guipúzcoa”, G.B.O., 1908-05-06, 55 zkia.).

6. Laugarren bat ere izango dute, Marinita izeneko neska.

7. Nabari denez, 1900eko erroldan ez da Anjel izeneko inor ageri. Etxetik kanpo behar zuen ordurako bada.

### 1.1. Izendapena

Agirre 1860an hasiko da bere herrian mediku lanak egiten. Aurretik, Eibarko plazan, besteak beste, Salvador Etxeberria elgoibartarra XVIII. mende amaieran eta, honi jarraiki, Antonio Barrenetxeakoa plazentziatarra, baina Eibarren bizileku zuena izango ditu. Agirreren aurretik baina, Agustin Zabaleta gizasemeak jardungo du sendagile<sup>8</sup>. Honek ere, gero gure Bizentek bezalatsu, luzaro jardungo du Eibarren, 32 urte egingo baititu mediku herrian.

Eibarko mediku titularra izateko betekizuna datorkion unean 28 urte ditu on Bizentek. Ez dakigu ordura arte inon lanean aritu izan zen, gauza da bere aurrekoaren jubilazio egunean bertan zegoela gure Agirre lanerako prest. Hona zer dioen Udal korporazioaren 1860ko azaroaren bateko aparteko saioak:

De igual modo se dio lectura al memorial de varios vecinos de esta villa en súplica que en vista de la avanzada edad del médico titular don Agustin Zavaleta, se proceda á la jubilación (sic), y en consecuencia al nombramiento de nuevo facultativo y que se hallaba en este villa un hijo de la misma adornado de las circunstancias para el desempeño de la plaza de Médico; enterados los concurrentes acordaron invitar al licenciado en Medicina (sic) y Cirujía don Vicente de Aguirre por si gusta desempeñar dicha plaza; y de conformidad se le señala el salario anual de diez mil reales, contando el sueldo desde el día de la fecha; bajo las mismas condiciones que los médicos titulares de esta villa han desempeñado anteriormente; y para el otorgamiento de la competente escritura de su razon se dio comision a los señores don Cándido Areitio, don Esteban Urcelay, don José Joaquín Aguirre, don Ambrosio Sustaeta, Presidente y Síndico<sup>9</sup>.

### 1.2. Medikuntza jarduera

Hain begirune handiz onartua zegoen mediku lanbideak ere izaten zituen gorabeherak. Maiz historiaren erauntsi azkarrek inarosten zuten eguneroko bizitza eta medikuek ere, udalaren kutxatik bizi beharra zutenez nagusiki, diru estutasunak izango dituzte. Hori bai, seguruena garai hartan edozein herritar arrunt harrapatuko zituenak baino leunagoak, aurki irakurriko dugunez.

#### ***XIX. mende hasiera: Udalaren diru estutasunak***

Eibarren historiari zegokionez, lehenengo eta behin herriaren parte hartze sutsua frantsezen inbasioen aurka, inguruko herri gehienak ez bezala, igarri egingo da udalaren gobernuan. Gauzak horrela, ikusten dugu Konbentzio gerraren ondorioz (1794) udalak ez zeukala dirurik medikuari ordaintzeko. Hori dela eta, Elgoibarkoa baliatzen zuten. 1802ko lekukoak diosku, arestian aipatu dugun Salvador Echeverria izeneko sendagilea etortzen zela Elgoibartik, ohikoak ziren 500 dukaten ordez, 110 kobratzera; pentsa daiteke aldizkako lanagatik. Gorago aipatu dugun azken gerratik, 8 urte iragan diren arren, oraindik ere ezin dute herrian bertan medikurik izan. Baina Plazentziatik bere burua eskaintzen duen berriki aipatu dugun Antonio Martin de Barrenechea prest dago 110 dukat kobratzeko mediku plazaren truke. Izan ere, udalaren arrazoiek zentzuzkoak dirudite: (...) “teniendo presente que se halla atrasada de medios la tesorería de propios y arbitrios de este villa para contribuir por ahora al médico”<sup>10</sup>.

8. Izen-deiturak eta, euskarazko grafian ekarri ditugu, oro har, agiri bat zuzenean transkribatzen ez dugunean, noski. Halaber, gaztelaniazko testuak orduko grafian idatzi ditugu.

9. EUA, 1851-1876, Akta liburua, A11, 14, 80 bis.

10. Ibid. 1802-09-26. 1798-1808ko Akta liburuak, 8. zenbakia, 149. or. Dena den, gaztelaniazko testuan diogun bezala, ohikoa zen, XVIII. mendetik gutxienez, Eibarrek, Elgoibar eta Plazentziarekin batera medikua izatea. Badakigu, esaterako, 1738an -Elgoibarko herriak, orduan Eibarrek baino biztanle gehiago zuen- Ororbiako Bernabe izeneko medikua bidaltzen zuela mediku lanetan Eibarrera. (GM, 306. or).



Urteak aurrera, frantsesen aurkako gatazkak izanen dira XIX. mende hasieran ere. Udalen diru-arazoak are larriagoak bihurtzeko, 1808ko udaberrian Espainiako Independentzia Gerra dela eta, Gipuzkoan barrena kanpaturik zeuden frantziar soldaduen eta beren azpiegituren kostoak gauzak zaildu egingo ditu. Ogia, garagarra, lastoa etab., erasotzaileek eskatuko dituzten bizigaiak dira. Gauzak horrela, Eibarrek Probintzia mailan berari dagozkion 4504 kobrezko erreal ordainduko beharko ditu. Diputazioaren laguntza oihua etsigarria gertatuko zen, frantsesen jeneral buruak ematen ez bazitzaion behar zuen jeneroa etxeetatik aterako zuela mehatxatzen baitzuen. Eibartarrek eman behar zuten dirua ez zen nonbait gutxi lekukoek esaten dutenagatik<sup>11</sup>.

Baina geroago diogun bezala, XIX. mendea hasi baino ez zen egin. Politika giro eze-gonkorra jarraitu egingo du. Hain zuzen, gure biografiatua artean haurra zelarik, I. Karlistaldia gertatuko da (1833-1839). Hirugarrena izango da baina (1872-1876), Agirre betebetan harrapatuko duena. Euskal Herrian zehar barreiatu zenari Hirugarren karlistaldia deitu diogu, espainiar estatuan jasan izan zituztenak aintzat hartuz. Gauzak horrela, Katalunian barrena, batez ere, 1846tik 1849ra izan zen *Guerra dels matiners* edo “goiztiarren gerra”, Bigarren Karlistada izendatuko dugu<sup>12</sup>.

Toribio Berraondo, gure Bizenterekin batera mediku titularra izango dena Eibarren, 1884an idatzi zuen gutunean kexu zen udal enplegatuek jasaten omen zuten soldatiko diru kenketagatik<sup>13</sup>. Ikusten dugunez idatzia III. Gerra Zibila amaitu eta aski hurbilekoa da. Diru kentze hura urtero 1000 pezeta baino gehiago irabazten zuten hiru udal enplegatuei egiten zitzairen. Hau da, bi medikuak eta idazkaria ziren, une hartan Pablo Etxeberria izeneko gizasemea. Hots, Antzinako Errejimenean eta geroago ere, udalen gobernuan estatusik onena ez ezik diru irabazia ere medikuek eta idazkariak izan ohi zuten. Udalak konpentsatzeko, medikuei, hain zuzen, aipatu dugun irabazi handien trukean txertaketak doan egin zitzaizkien eskatzen zien:

(...) Los dos médicos titulares perciben un sueldo directo del presupuesto bastante mayor que los de la generalidad de la Provincia, hagan gratis anualmente la vacunación y revacunación, en compensación del beneficio que esta Comisión propone á V.S. en su favor<sup>14</sup>.

### 1.2.1 Gerra eta izurriteak

Gaixotasunari aurre egitea ez da inoiz samurra izaten. Gaitz zaharren kontrako erremedioak aurkitu ahala berriak ager baitaitezke. Gure biografiatuaren kasuan jakin badakigu, XIX. mendearen bigarren aldi hartan gaur egun “pandemia” izenez deitzen ditugun izurriteek gizartearen esparru handiak harrapatzen zituztela. Bizentek zein bere seme Ziriakok beren lanbideak zeukan zailtasunaz kanpo herritarrei garbitasunaren oinarriak erakusten jardun behar izaten zuten. Gaixotasunek: kolerak, nafarrerriak, gripeak geroago... zeregin gehitu bat ekartzen zuten herrietako medikuen kezketara.

11. Eibarko udalak gutxitu nahi luke diru emate hura: (...) “Y que en el caso de que no se pueda hallar dicho dinero á interés se proceda á la venta de terrenos de esta Noble Villa por dicho síndico á consecuencia de la facultad con que se le autoriza por dicha Provincia vendiendo en primer lugar los montes concejiles y quando no hubiese compradores de estos, las tierras labrantías hasta en cantidad de dicha suma”. (EUA, 1808-05-22, 342-344bis orr.)

12. Halere, aldea dago, historiagileen arabera, gerra bakoitzaren iraupena adierazteko.

13. Berraondok zioenez, 1878ko agindu batek horrela ebatzirik, urtean 1000 pezeta baino gehiago irabazten zuten udal enplegatuei %10 kentzen zitzairen nominatik. Gauza da -Berraondok esaten duenez- ez dela Probintzian inongo udalik horrelako diru kenketarik egiten duenik. Pozarren eman omen zuten diru hura udalaren larritasuna apur bat arintzeko baina urte batzuk pasatu dira eta soldata osorik jaso nahi dute. Udalak onartu egingo du eskaria baina urtebete beranduago hasiko omen dira kenketarik gabe ordaintzen presuptoetan ez baitute noski, horrelako diru kopururik islatu.

14. EUA, 1884-08-14, 6. or.

Eta zer esanik ez, egunerokotasun zail hartan gerra bat suertatzen bazen. Horixe bera gertatuko zaio gure gizonari 1872-1876 urteetan luzatuko den karlistaldian. Bera liberala izan arren, Agirrek ez du herria utziko karlistak bertan sartzen direnean.

Eta horrela da, udal artxiboetan irakurtzen dugunez, Agirre bakarrik geratuko da mediku lanetan gerrak eztanda egiten duenean. Ideia liberalak baditu ere, arestian aipatu dugun bezala, umetan I. Gerra Zibila nozitu behar izan zuen medikua erasoan datozen karlistek bere langintza errespetatuko dutelakoan dago. Gauzak zailtzeko, 1873an nafarreri izurritea zabaldua dago herrian. Herritar asko dago gaitzak jota. Orduan Agirrek txertoak eta gainera-ko sendabideak udalak doan eman diezazkien gaixoei eskatzen dio herriko erakunde gore-nari. Agirrek bere lepo hartuko du haien ordainketa, 7 urte gero Korporazioari gogoratzen dion legez: “por honorarios devengados en la práctica de vacunaciones y revacunaciones desde el año 1873 hasta la fecha”<sup>15</sup>.

Baina aldi batez txertoa ematea udalak ordaindu bazuen ere, berak dio horrek ez duela esan nahi orduan ezarrita geratzen zela diru kopuru bat. Horregatik ezetza emango zaio on Bizenteren eskariari. Nahiz eta udalak berari aitortu: “los grandes y extraordinarios servicios que tenía prestados en la inoculación y asistencia de enfermos variolosos”

Agirrek astebete geroago honako hau gogorarazten dio Udalbatzari:

(...) haberse acordado el año 1871 que en adelante se practicasen gratis al vecindario las vacunaciones y revacunaciones, quedando aquella corporación encargada de abonar los 50 céntimos de peseta que antes se cargaba á los mismos operados. El acuerdo, jarraitzen du Agirrek, se hizo público por medio de varios pregones participando al vecindario que en la casa de los dos titulares de la Villa quedaba abierta la vacuna gratis pagada por el Ayuntamiento. Esta medida se tomó á propuesta de la Junta de Sanidad con otras encaminadas á impedir la propagación de la epidemia entonces reinante y ajustándose á las instrucciones de la circular entonces remitida por la Diputación foral.= La vacunación y revacunación en masa de la población y la rápida desaparición de la epidemia más mortífera que ha conocido la Villa y la inmunidad adquirida contra la enfermedad confirmada más tarde con el elocuente ejemplo de nuestros **emigrados** fueron resultados demasiado importantes para que al abonarme la cuenta devengada por los dos mil y más vacunados directamente por mi persona dejara el Ayuntamiento de encomendarme que continuara con igual celo mis trabajos de vacunación bajo las mismas bases.

Agirrek gogorarazi nahi dio udalari gerrara joandako herriko boluntarioen artean berak txertatutakoak zeudela, eta, hain zuzen, gai izan zirela gaixotu gabe herrira itzultzeko.

Gure biografiatuak amaitzen du berea udalbatzaren zabarkeria salatuz eta, berriro ere, ordainketa eskatuz.

Udalak baina bereari eusten dio, nonbait lehenago aipatuak geratu diren diru zailtasunak jotzen zituen berriro ere arrazoi. Gauzak horrela ondokoa onartuko du soil-soilik: (...) “Ratifican su acuerdo del día 14, disponiendo sin embargo, se abonen al recurrente sesenta pesetas que de su bolsillo particular suplió en la compra de linfa en las vacunas practicadas por él”<sup>16</sup>.

15. Bizente Agirrek 1880ko apirilaren 14an egiten duen gutunean, hots, udalak 510 pezeta eman diezazkion.

EUA, 1880ko Akta liburua, 233. or. eta ondorengoak.

16. Candido Alberdi zan orduan alkate. Zazpi kontra eta hiru Agirrerren alde aterako dira. Bestalde, gaztelaniazko bertsioan erakusten ditugu Agirrek Gerra hartan jasandako arazo batzuk.

Dena den, zerbait lortu da. Izan ere, ordutik aurrera erabakiko baita:

(...) Sean gratis las vacunaciones y revacunaciones, compensando a los facultativos titulares sus honorarios de fondos municipales, para lo cual esta Corporación (?) el mejor medio de hacer generar este importante servicio sanitario, poniendose al efecto de acuerdo con los expresados profesores.

### ***XIX. mende amaierako izurriteak***

Arestian adierazi bezala, gaixotasuna hedatuko zen sikosia ez zen atertzen. Hura ahal den neurrian saihesteko, 1885ean, udalak herritar bat izendatuko du eskekoak herritik bota eta aparteko zaintza egin dezan. Egia esatera, 1884ko udarako alarma pizturik zegoen. Frantziako Mediterraneoko itsasportu inportanteenetatik, itsasoa beti izurritebide, berri txarrak zetozen. Toulon-en, Marseilan, Sète-n, ehunka hildako uzten ziharduen kolera. 1885rako sartua zen penintsulan. Gauzak horrela, Gipuzkoako Gobernadore Zibilari helarazten zitzaion Espainiako Barne Arazoetako ministroaren agindua oso zuzena zen: (...) “Se nombre á un individuo del Real Consejo de Sanidad para impedir la invasión del cólera morbo asiático y que a tal fin examine las cuarentenas y lazaretos”. Ez dakigu arestian aipaturiko pertsona eta ondoko udal aginduan agertzen dena pertsona berbera ote ziren. Ez dirudi. Izan ere, Domingo Ormaechea honek ez du ematen medikuntzazko jakinduria berezirik duenik. Hona zer dioen Udalaren adierazpenak:

(...) El cólera morbo que azota la mayor parte de las provincias de la península. Por ello se nombra a una persona, “polizonte provisional”, el cartero del pueblo, para que expulse a los mendigos y denuncie ante la alcaldía cualquier falta que observase en la policía urbana<sup>17</sup>.

Baina finegia izateak nonbait arriskua dakar. 1885ko abuztuaren 3an bat-batean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere kargutik kenduko du Plácido Zuloaga alkate errepublikanoa. On Bizente herriko medikuaren aholkuz erabaki bat hartu duelako. Irakur dezagun zer dioten egun hartako saioko lekukoek:

El Gobernador Civil suspende en su cargo al alcalde don Plácido Zuloaga. Por practicar cuarentena con varias personas en la casa Palacio denominada Unzueta Jáuregui, a pesar de lo terminantemente ordenado por este gobierno de la Provincia obedeciendo repetidas reales órdenes, pues no es otra cosa significa la observación que han estado sugetos (sei pertsonaren izenak ageri dira ondoren, eibartarrak deituragatik), puesto que la inspección médica dispuesta para las personas procedentes de provincias infectadas, no significa más que una visita médica que aunque muy prolija nunca podrá emplearse más tiempo que en el de una larga visita. Considerando que la interpretación dada por V. Á las palabras *visita de inspección* con la de observación, tengo que conceptuarla maliciosa, tanto por su parte, como por la del médico titular, porque dada la ilustración de ambos no es posible que las confundan induciendo á creer que V. lo ha dispuesto así con el fin de establecer las cuarentenas a pesar de la prohibición absoluta de estas; he acordado suspender á V. del cargo de alcalde, de cuya resolución doy cuenta al Excmo. Sr. Ministro de la Gobernación debiendo entregar el mando de esa jurisdicción al primer teniente de alcalde<sup>18</sup>.

17. (Ibid. 1885-07-20, 27bis)

18. EUA, 1885ko Akta liburua, 1885-09-03, 31. or.

Gobernadore zibilaren ebazpen hark alkate aldaketa ekarriko du. Jose Cruz Echeverria izango da alkate berria.

Baina izurriteen beldurrak jarraitu egingo du. Horrelakorik iradokitzen digu 1886ko maiatzaren 1eko Diputazioaren urte ekonomikoaren hasierako bosgarren biltzarrak. Bertara gonbidaturik datorren gobernadore zibilak ohiko osasun hesia estutzeko aholkua dakar. Gipuzkoara datorren edonor, mendiz, errepidez edo trenez, aztertua izanen da. Irungo mugaz kanpo, mugarri diren mendate eta pasagunetan “inspecciones médicas” direlakoak egingo dira. Hain zuzen, Endarlatsa, Ereñozu, Ilarrazu, Etxegarate, Zumarraga, Arlaban, S. Ageda, Elgeta, Eibar, Urkarregi eta Saturraranen, “contra el contagio de la epidemia colérica”. Azkenik, 1885ean eginiko lanen memoria gauzatzekoan, Zumarragatik baliabide gehiago eskatzen dituzte. Egin beharreko kontrolak lanabes asko eskatzen baititu. Honako gastuak aipatzen ziren, besteak beste: “honorarios de los médicos, inspecciones, personal auxiliar, construcción de barracones, productos químicos y cuanto se consideraba necesario para las primeras unidades preventivas”<sup>19</sup>.

### 1.3. Ekimen politikoa: Historiaren zurrunbiloak

Agian epigrafe honi izenburu hori jarri ordez Agirrek bere herriko *res publica*-n egin zuen ekarpenaz jardun beharko genuke egokiago. Izan ere, gure herritarra XIX. mendeko pertsonaia izanik garai hartan indarra hartzen joango ziren ideologiak ongi ezagutuko zituen. Bere hautua, jarraian ikusiko dugunez, liberalismorantz lerratzen zen errepublikanismo federaziozalea izango da.

Agirrereren baitan T. Etxebarriak aipatzen zuen *goiko* eta *behekoen* arteko ideologiaren kontrajarpena bete-betean biziko da. Baina Eibar arin aldatzen doan herria dugu. Baserri bizi-tza indarra galtzen ari da XIX. mendearen erdialderako. Hain zuzen, 1821ean oraindik nagusi baitzen baserrietan bizi zen jendea kaletarren aldean<sup>20</sup>.

Politikagintzara itzuliz, errepublikanoak tradizionalista eta gainerako eskuineko indarren lehian garaile aterako dira hainbat urtez udalaren gobernuari beren eskuetan eusten diotelarik.

Ez da lan xume honen asmoa inori historiaren urratsak erakustea. Bada bazterretan horretaz zer hauta. Zilegi bekigu baina XIX. mende hartako historiaren pasarte batzuk laburbiltzea azken uneko irakurlea nolabait bideratu asmoz. Frantsesen inbasioak, Lehen Karlistaldia eta beste zenbait gertakari aipatuak izango dira lerro hauetan barrena. Koka gaitezen orain, III. Karlistaldiaren inguruan. Hona orduko garrantzizko data batzuk. Seiurteko aldi bizia osatzen dute:

1868. Iraileko Iraultza. Berez militar talde baten altxamendua da. Besteak beste, bozkartze unibertsala aldarrikatzen dute baina praktikan oraindik urrun dago formula hura.

1869. Konstituzio berria izango du Espainiak. Erljio askatasuna aldarrikatzen da baina, gure errepublikazaleen kaltetan, monarkia berresten dute.

1869. Espainiako errepublikano federaziozaleen ituna. Eibarrek Euskal Herriko federaziozaleak bilduko ditu.

1872. Euskal Herrian Hirugarren Karlistaldia etengo da.

19. GDSE, 1886-05-01 eta 1886-XI-09, hurrenez hurren.

20. Betolazako Francisco alkate zelarik egin zen kontaketa, 1269 bizilagun zituen baserriak eta 1218 kaleak (TOAO, JD IM 4/12/65).

1873. Otsailaren 11n, Espainiako I. Errepublika aldarrikatzen da. Hamaika hilabetez iraungo du.

1873. Martxoa. Euforia giroan, eibartar errepublikanoek Agirre herritarra buru dutela euren ordezkariak hautatuko dituzte.

1873. Uztaila. Errepublika arrakalatzten ari da. Federalismoaren aitaren gobernuak, hots, Pi i Margall-enak, utzi behar izango du agintea. Cartagenan, berriz, iraultza kantonolari ekiten diote.

1873. Abuztuaren 14 eta 15ean karlisten setioa Eibarri. Eibartar boluntarioak exiliora doaz. Ez dira 32 hilabetez itzuliko.

1874. Urtarrila. I. Errepublika itzali egingo da. Badator, berriro ere, monarkia.

1876. III. Karlistaldiaren amaiera. Udaberrian etxean dira aldegindako boluntarioak. Uztailaren 21ean 1839ko legea berresten duen beste lege bat onetsiko dute. Foruen ezeztapena egina dago. Zenbait urte gero, 1887an, osatuko diren Kontzertu Ekonomikoak izango dira foru garai hartako arrasto bakarrenetakoa.

### 1.3.1. 1869ko errepublikano federaziozaleen ituna<sup>21</sup>

Agirre, seguruenik bere karguak eskatzen zion neutraltasuna politika gaietan bultzaturik, ez zen politikagintzan gehiegi murgilduko. Baina aurki ikusiko dugun bezala, ez da gure sendagilea bere ideologia ezkutatzen ibiliko den horietakoa. Umea zen Isabel II Espainiako erregina hautatu zutenean, I. Karlistaldiari bidea eginez. Ondorengo urteak ez dira bestalde lasaitasunez isuriko, orduko eragileek istilu eta egonkortasunik gabeko aldia jasan behar izango baitute. 1868ko iraultzak kendu egingo ditu borboiak eta 1869ko ekainaren 1ean Konstituzio berria izango du Espainiak. Kari horretara datorkigu ondoko ituna. Hain zuzen, 1869an ospatuko da Eibarren Euskalerriko errepublikano federaziozaleen Biltzarra. Hau da, ekainaren 23an, estatu mailan sinatu zirenen antzera, Eibar hautatuko dute hegoaldeko errepublikanoek Tortosan, Cordoban eta Valladoliden egin duten bezala, egitasmo federala bultzatzeko. Francesc Pi i Margall katalana izango da, XIX. mendearen bigarren zati gehienean izan zen legez, itun haren sustatzaile nagusia. Eranskinean oso-osorik ematen dugu Eibarko errepublikazaleen 6 puntuko erabakia eta nortzuek sinatu zuten bera. Bertan ziren, besteak beste, Ricardo Becerro de Bengoa arabarren artean, Cosme Echevarrieta bizkaitarren aldetik eta eibartarren ordezkari, on Bizenterekin batera, Inocencio Ortiz de Zarate eta Jose Cruz Etxebarria biak ala biak herriko Korporazioan karguak beteko zituztenak. Lehenengoa alkate izango da 1876an aldi labur batez (GM: 476) eta bigarrena 1885tik 1888ra, gobernadore zibilak Placido Zuloaga alkate kargutik baztertu zuenean.

Ebatzi zituzten 6 puntuetatik eta ondoriozko “transitoria” deitzen zuten beste hartatik honako laburpena egin daiteke:

- 1.- Lehenengo eta behin, eta zalantzarik gabe, behin baino sarriago azpimarratzen baitute sinatzaileek, Euskal Herriko foru sistemaren baitan duten konfiantza nabaria da: euskaldunok baliatu eta hartaz gozatzen dugun gobernu sistema demokrazia eta errepublikazkoa da zeinak oparotasuna eta abantailak ekarri baitizkigu (suposatzen da Espainiako gainontzeko eskualdeekiko)<sup>22</sup>.

21. Eranskinean “El pacto republicano federal” izenburupean ematen dugu oso-osorik testua.

22. Geroago Euskal Herriko errepublikanoek behin eta berriro azpimarratuko duten ñabardura. Hots, euskal foruak demokratikoak, errepublikanoak eta laikoak dira, zioten. (Fr. Goitia Ostolaza gipuzkoar errepublikanoaren foruen izakerari buruzko gogoetak ildo horretatik zihozten).

- 2.- Estatuko gainerako lurraldeekin izan dezakegun lotura federaziozkoa izango da “lazo federal republicano” diote berek.
- 3.- Zenbat eta monarkia gehiago orduan eta askatasun gutxiago, orduan eta istilu, gerra gehiago. Laster eztanda egingo duen III. Karlialdiak arrazoia emango die.
- 4.- Berea, bake bidezko borroka da. Monarkia onartzen da oraingoz, baldin eta giza eskubideak urratzen ez baditu.

Sei urteko aro demokratikoaren ondotik, I. Errepublika ezagutuko dute, 1873-1874ko aldian, urtebetez, ozta-ozta baino biziraungo ez duena. Ezinezkoa ez ezik liburu honen helburua ere ez da urte hartako gertakarien berri ematea; gauza da borboiak berrezarriak izango zirela Canovas del Castillo politikariaren eskutik. 1874an oraindik mutiko ezjakin bat baino ez den Alfonso XII prest ageri da monarkiari berrekiteko. Akabo gure errepublikazaleen itxaropenak.

Gure intrahistoriara itzuliz, Agirrek beti izango du agerian bere ideologia liberala eta errepublikanoa. Esaterako, garaiko prentsatik dakigu maiz mitinetan mahaiburuan j ezartzen zela, mitinaren edo mitinlarien aurkezpena eginez. Begirune handia zitzaion gure medikuari. Hara nola 1892. urteko abuztuaren 27an, zeinetan bere ibilbidea laburbiltzean hizlariak, irakurtzen ari gara, “ejemplar y larga vida política” izan zuela esaten duen. Eta ondoren: “hizo la presentación de los diputados y dio las gracias á los que de los pueblos de la provincia acudían al acto á hacer confirmación de su fé liberal”<sup>23</sup>.

### 1.3.2. 1873ko errepublikanoak

1873ko otsailean Espainian I. Errepublikak egin zuen eztanda. Bazirudien zailena egina zegoela. Monarkiaren mendetako biziraupena amaitua zen. Hainbaten euforiazko giro hartan hurrengo hilabeteetan eibartar errepublikanoek bilerara deitu dute. Gauzak zehatz esateko, aurrenik pregoi bidez batzorde federaleko kideak deituak izango dira martxoaren bateko iluntzeko zortziretan. Helburua, biharamunekoa prestatzea, hau da, herritar errepublikanoek batzorde berria antolatzeo aukera izango dute. Horretarako berek deitu zuten “sufragio universal”erara, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bat t’erdiak arte, astia izango dute aipaturiko eginkizunean aritzeko. Hautatze prozesu hartan gure arreta deitzen du harako ia 500 botoemailereren kopurua. Izan ere, Salon-Teatron biltzen den jendetza handia da oso, kontuan hartzen badugu Eibarrek sasoi hartan 4149 eskubideduneko bizilagun zituela<sup>24</sup>.

Izenburu luzea duen “Comité republicano federal democrático” hartan, batzorde berrian, alegia, gure Agirrez kanpo, José Cruz Echeverría eta Inocencio Ortiz de Zarate aurkitzen dira, lehen ere aipatu ditugun eta Eibarko alkate izateko ohorea izan zuten bi pertsonaia.

Agiriak berez ez digu deus esaten errepublikano haien antolamenduaz. Azpimarra, dena den, errepublikazale haien Frantziarekiko mimesia. Norbere izenari herritar hitza, “ciudadano” aurre ezartzen zioten, Frantziar Iraultzaren garaiko egoera gogoratuz. Nahiz eta historiak erakutsi Pirineoz handiko ideia handien eramaleak ez zetoze la beti bat, egunerokotasun gordinean, aldarrikatzen zutenarekin.

23. VG, 1892-08-29.

24. Lau urte gero, 1877an, Eibarrek 4149 bizilagun eskubidedunak zituen. (EUA, B 21. 1V eta B21. 2V). Dokumentu honen ezagutza Etxeberria Gisasola familiaren prestutasunari eskertu behar diogu. Eranskinean ematen dugu agiria Bizente Agirrerri eskainitako atalean.


### 1.3.3. III. Karlistaldia 1872-1876

Gerra garaian Eibartik kanpo karlisten aurka jardun zuten eibartarren itzulerak egoera tamalgarrian aurkituko du herria. Boluntario liberal batek honela deskribatu zuen orduan ikusi zuena:

Los eibarreses que estaban diseminados casi en todas las ciudades de la nación, empezaron á tornar á sus hogares, y se encontraron que todo les faltaba; errantes en tres años de penosa emigración, agotáronse sus recursos para emprender de nuevo sus habituales trabajos, las fábricas que estaban cerradas, el ajuar de sus casas llevado por el fisco insaciable de los carlistas, los útiles de trabajo roídos unos y destruidos los otros, la hacienda municipal agobiada por enorme deuda, la sociedad de socorros mutuos poco menos que en quiebra, y el pueblo entero herido de muerte en sus intereses morales y materiales<sup>25</sup>.

Karlistaldietan, bada, bere burua liberaltzat jo izan arren, gure medikuak ez du herria utziko eta gaixoak zaintzen jarraituko du. 1874ko maiatzaren 21eko gutun batek erakusten digunez.

Gutun horretan gaixo baten egoera larria egiaztatzeko idazten duen agiria irakurriko dugu. On Bizentek 68 urteko Francisca de Erbiti emakume alarguna artatzen du: “catarro pulmonar asmático” zuena, zeinari ohiko “infarto gástrico” baten gainzamarekin are okerrago jartzen omen zitzaion diagnostikoa<sup>26</sup>.



Bizente Agirreren eskuizkribua Eibarko gaixo baten gaitzaren berri ematen. Ohar gerra garaian idatzia dagoela. Agirrek, liberala izan arren, ez zuen Eibartik alde egin karlistak sartu zirenean.

25. VG, 1892-X-03. Sinatugabeko artikulua “Los reaccionarios de Eibar” du izenburu. Antonio Iturrioren luma egon liteke testu honen filosofian. Bestalde, gaztelaniazko bertsioan osatzen ditugu Agirrek Gerra hartan jasandako arazo batzuk.


26. Ikus, Eranskinean, Agirreren agiria.

### ***Boluntarioei laguntzen***

Bere lanbideak ahalbidetzen zion neurrian, Agirre liberaltasunaren eta errepublikanismoaren iparrari lotu ohi zitzaion.

Bere adierazpenetik dakigu III. Karlistaldian Eibarko boluntarioei laguntzen egin zuen ahalegina. 280 lagun inguru izan omen ziren Espainian barrena barreiatu ziren eibartarrak 1873. urtean. Ia hogeitazero, Agirrek bere eskuhartzea guda hartan zalantzan jartzen zuen bati erantzuten zion. Hona beraren hitzak:

(...) Últimamente sabe la parte activísima que me corresponde en la formación, sostenimiento y dirección del cuerpo de voluntarios de esta villa, las dificultades que debimos vencer, los sacrificios de todo género que tuvimos que hacer<sup>27</sup>



Errepublikanoen Biltzarra. Espainiako I. Errepublikak egin berri zuen eztanda eta poza zen nagusi.

Hiru urte lehenago, errepublikanismoak izan ohi zituen krisi ziklikoetako baten barnean ikusten dugu protagonista. Hainbat joera eta pentsamoldetan banatua, oraingoan alderdi liberal bat sortzeko asmoz bilduko dira Probintzian zehar. Eibarko batzorde liberala sinatzen duen taldeak, esaterako, Gipuzkoako Probintzia mailako batzordeari erantzuten dio eta bere adostasuna erakusten aipaturiko alderdi liberala sortzeko ahaleginetan. Helburua zen etorkizun hurbilean ospa zitezkeen hauteskundeetan karlistak garaitzea.

Los que suscriben se creen en el deber de participar á V. Que coadyuvarán en la medida de sus fuerzas á la creación y organización del partido liberal bajo las bases que en él se expresan. Por ausencia del Presidente, el Vicepresidente, Juan María Orbea, Antonio Iturrioz, Vicente Aguirre, Cristobal Echaniz y Narciso de Zulaica<sup>28</sup>.

27. VG, 1892-X-27

28. VG, 1889-01-15. Gutuna 1888ko abenduaren 20an zetorren sinatua.



#### 1.4. Eibarko herritarren errentak

Gure biografiatuaren egoera ekonomikoaren berri Eibarko udalerriko hautagaien zerrendak ematen digu. 1889. urtean gaude. Hauteskundeak iragartzen zituztenean ageri ohi ziren zerrendak ditugu aipagai. Beraietan herritarrek ordaindu ohi zituzten zergak ikus ditza-kegu. Ordainketa haien arabera ezartzen zuten udalerrian hautagai izan zitezkeen zerrenda. *Sufragio censitorio* egiten zen garai genuen oraindik orokortu gabe baitzegoen *sufragio universal* zeritzona. Gurean 711 herritar sartzen ziren eskubide haren baitan. Eibartar haiek ordaintzen zutena aberatsenetik hasita 148tik 2 pezeta bitartean kokatzen zen. Zerrenda hartatik kanpo geratzen ziren beste ehun herritar baino gehiago, 840ko kopurua osatu arte zehazki<sup>29</sup>.

Ignacio Ibarzabal liberal ospetsua 148 eta Juan Manuel Orbea alkate ohia eta empresa gizona 111 pezetarekin ageri ziren “aberatsenak” bezala. P. Zuloaga, Inazioren aita, errepublikanoa bera ere, zortzigarren ageri zen 67 pezetarekin.

Gure Aguirrerengana itzuliz, 27. postuan ageri da, “elector elegible” bezala, 33 pezetaren ekarpenarekin.

Zerrenda hartan ageri diren izenak begiratu, garbi azaltzen da gure errepublikano-liberal haien egoera ekonomikoa. Eguneroko borrokan ilunzaletasunaren indarren aurka jarduteko izan zuten adorea txalotuz noski, ikusten dugu halaber, beraien estatusak gizartearen erpinean kokatzen zituela. Egia esatera, beste aberats asko bezala, liberalak izan zitezkeen bakarrak eurak ziren, orduan gizartearen esparrurik zabalena osatzen zuen herri xeheak ezinezko baitzuen.

#### 1.5. Agirre euskaltzale

##### *Idazle ibilbidea*

Eranskinean Agirrek idatziriko artikuluen eta bere *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural* liburu bakarraren berri zabala ematen badugu ere, aurrera dezagun zerbait haren hizkuntza pentsamenduaren filosofiaz.

Idazle berantiarra, bere idazlanetan euskararen jatorriari eta izaerari erabat loturik, gure medikua ez da –dakigularik– idazgai horretatik aldentzeko. Egunerokotasunak kezkatu, Agirrek bere garaiko prentsan idatziko ditu bere hizkuntza teoriak. Oker ez bagaude, 1882. urtetik hasita, Manterola donostiarrak sortu zuen *Euskal-Erria* aldizkaria izango da gure idazlearen lanen lekuko nagusi. Artikulugile legez, Agirrek ezizen berbera erabiliko du, José de Guisasola, bere bigarren deitura baliatuz<sup>30</sup>. Idatziko duen liburuan, oster, bere benetako izena agertuko da: Vicente Aguirre. 1882tik 1906ra arte hogeitabost urtez hainbat eta hainbat artikulu argitaraziko ditu aipaturiko aldizkarian. Horrekin batera, *La Voz* egunkariak, besteak beste, bere *Euskal-Erria*-ko artikuluen aipamenak jasoko ditu.

Agirrek berak *Tentativas*-en orrialdeetatik gogoratzen digu bere idazle hastapenak Madrileko *Controversia* (1887-1899) aldizkarian idatziriko artikuluekin izan zirela. Zehatz esanda, 1893an eta 1894an, gero argitaratuko zuen liburuaren titulu berberarekin: *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural*. Aspalditik zebilen bada gure Agirre liburuaren gaian oldozturik.

29. Distrito municipal de Eibar. Lista de electores del distrito. Electores elegibles. Cuotas que pagan. EUA. 1889-01-31. 123a. orrialdea. Hautatuak izan ezin zitezkeen herritarrek pezeta bat baino gutxiago ordaintzen zutenak ziren.

30. Ikusi dugun bezala, bere amaren aldetiko aitona ere izen berbera zuen.



Medikokua. Agirretaren bizilekua Plaza Barrixan.

### ***On Bizente Agirrek idatzi ez zuen liburuz***

XIX. mendearen aldi handi baten hainbat eta hainbat bizipen ezagutuko zituen gure gizonak. Era guztietakoak: Eibarko industriagintza modernoaren sorrera, lan-harremannen finkatzea: gremioak eta askoz geroago sindikalgintzaren lehen urratsak. Orduko merkataritza harremanak. Eta, batez ere, nola hazten eta aldatzen zihoan bere herria. Kaletarrak eta baserritarrak. Aurre-rago aipatu dugun bezala, XIX. mendearen 1. herena amaitzeaz zela, oraindik ere nagusi zen baserritar mundua gurean. Gero etorkin bakanak. Batzuen eta besteen idiosinkrazia. Zenbat eta zenbat gauza konta ziezagukeen gure medikuak! Baina, tamalez, gure biografiatuak agian hauta zezakeen biderik malkartsuena aukeratu zuen, besteak beste, euskararen apologia bat idazteari ekin baitzion. Beste bat gehiago! Eta horretarako Astarloa durangarrari jarraituko zion buru-belarri haren teoria bitxietan barrena. On Bizentek ere bere aletxoak jarri nahi izango zuen euskararen laudorio-mundu

aski antzuan. Hau da, euskarak gutxien behar zuen alorra ukitu zuen gure herrikideak. Tamalez, esan dezakegu guk, gaur eta hemendik.

Eta, oker ez bagaude, Mogezez deus ez. Irakurria behar zuen eibartar-markinarraren *Peru Abarka* eta haren etimologiak ezagutu, baina gure Bizentek ez zituen, nonbait, aipatu ere egiten. Arrazoiak garbia dirudi. Mogelek ez zituen durangarraren teoriak oso estimutan. José Vargas Ponce-ri luzatu zion gutunean honako hau aitortzen zion, besteak beste: (...) “Yo conozco mucho a este sujeto; es hábil, ha hecho mucho estudio del idioma. Nada quiero quitarle de su talento y dones; pero no quiero ocultarle a Vmd, no gustará a los críticos de buenas narices su genio sistemático. Es demasiado metafísico, y será un galimatías mucha parte de su escrito”<sup>31</sup>

Agirrek beste edozertaz idatz zezakeen gaztelaniaz edo euskaraz eta askoz ere erakar-garriago bihurtuko zitzaigukeen. Zer pentsa bere 75 urteko bizitzaz konta ziezagukeenaz. Ia mende erdia sendagile. Bizitza oparo hartan ikusitakoak, entzundakoak, burututakoak ez ziren makalak izango. Baina horrelakorik papereratu ordez, euskara zein zaharra, zein perfektua, zein harmoniatsua zen esaten jardungo zuen.

31. Uriarte, J. M. *El gramático Pablo de Astarloa*, BBK, Bizkaiko gaiak, 2002. 63. or.

Ez dezagun baina dena alderdi etsikorretik begiratu. Bere idatzietan Agirrek bere garaiko euskararen berri ematen digu. Han hemenka oso sakabanaturik bada ere. Hasteko, on Bizentek gure euskalkiari dion xera azaltzen zaigu behin eta berriro. Eibarko euskara erakutsiko die Bonaparteri eta Campioni. Euskarari buruz jardungo du Unamunorekin. Pentsalari bilbotarra hartuko dute bere etxean Agirretarrek, hura eibarreratzen denean, zertzelada horrek ez duela-rik galaraziko bilbotarrak hitz gordinak bota ditzan Agirreraren liburuaren kontra. Urkixo gaztearen RIEV aldizkariaren sorrera ilusio zein etsialdiz hartuko du bere bizitzaren azken egunetan. Ilusioz euskara aztertzeraz zectorren argitalpen bat ikusten zuelako, apur bat etsiturik aldizkari berriko atea ez dizkiotelako zabalduko. Gure medikuaren teoria ausartek ez zuten dagoeneko lekurik bide berri eta zientifikoetatik jo nahi zuen hizkuntzalaritza modernoan.

Agirre, Astarloaren idealizazioetatik tiraka dabil bere medikuntzako esperientzia haren ideien mende jarriko duelarik. Hain zuzen, gure herritarrek ez du hizkuntzaren bilakaera aintzat hartzen. Euskarak Tubalen garaitik iraun du. Orduan zen bezalako da. Gainera, deus ez da alperrik gure hizkuntzan. Izan ere, Astarloari buru-belarri jarraituz, euskal letra bakoitzak esanahi berezia duela esango digu. Gizakiaren hizkuntzan oihu bakarra dago, biziaren oihua. Eta guztien hastapenean a bokala “el grito de la vida, grito fundamental humano”. (III. orrialdea). Ez dio bada, bokal berari bi kapitulu oso eskaintzen bere liburuan!

### 1.5.1. Bizente Agirreraren bi gutun Julio Urkijori

1907ko martxoaren 19an eta ekainaren 25ean gure medikuak bi gutun idatzi zizkion RIEV aldizkaria abiarazi zuen bilbotar ikertzaileari. Artean Urkijok 36 urte baino ez ditu eta dagoeneko erakutsia du inoiz izan den euskarazko aztarna idatzi zaharren biltzaile nekagaitzena izango dela. Hain zuzen, bi urte lehenago Zarauzko karmeldarren komentuan Joannes Etxeberri Sarakoaren idazlan asko aurkituak ditu. Gertakari hau dela eta, bere lehen gutunean Agirrek zoriondu egingo du Urkijo bi arrazoirengatik: RIEV aldizkari berria argitaratzeari ekin diolako eta Etxeberriren izkribuak zabaltzeagatik. Agirrek Etxeberri “comprofesor” eta “hermano de raza” deitzen du, haren eta bere patu desberdinak alderatuz. Etxeberri Agirre bezala medikua izan zen. Dena den, Agirrek bere burua probilejiatua ikusten du bestearenaren aldean: jubilario soldata osoa kobratzen baitu! Tamalez Etxeberri bere obra euskaraz egin zuen, apologia barne, eta gure Agirrek gaztelaniaz. Hegoaldeko apologisten patua!



Bonaparte printze euskaltzalearen erantzun bat bere artikulua prentsan Jose de Guisasaola ezizenaz izenpetzen zituen Bizente Agirrerri.

Joannes Etxeberriren liburua apaiz lagun batekin irakurri duela diotsa Urkijori. Nor ote? Lapurtar euskalkia atsegin du: (...) “Original y encantador dialecto laburdino, gozándonos sobre todo en hallar en él giros y modismos que hoy mismo empleamos en este rincón limítrofe con Durango y Marquina por un lado y Vergara por otro”.

Eta herriak, hiltunek, oro har, idazleek baino hobeto erabiltzen omen dituzte aipaturiko esapideak: (...) “mejor empleados si cabe que por nuestros mismos escritores”. Izan ere, lehenengo gutun hartan Agirrek ez du aukera galduko bere euskalkia goratzeko: (...) “El para nosotros original y encantador dialecto”.

On Bizenteren azken gutuna gure gizona hil baino sei hilabete lehenago idatzia da. Eta azken honi ez dario lehenengoaren poztasunik. Agirre bere teoriei gogor eutsiz hilgo da. Behin eta berriro bereari oratzen dio. Hizkuntza medikuntzarekin eta fisiologiarekin lotzen jarraitzen du. Behin eta berriro diosku: (...) “La estrecha relación que hay entre los primeros gritos que profiere el niño y las diversas sensaciones que recibe en la lactancia y luego en su alimentación”.

Baina Agirre bakarrik sentitzen da. Ia. Julio, don Julio dauka. Baina ez Urkijo. Julio Cejador aragoiar jesulagun ikertzaile ausarta baizik. Harengana doaz gure medikuaren goresmenak: (...) “eximio lingüista, el más eximio de los filólogos españoles”... Urkijoren aldizkariak bere teoriak sailhesteak min ematen dio on Bizenteri.

Erresumindurik oso dabil RIEVera bidalia duen artikulua ez baitiote argitaratu. Baina Urkijo libre utzi nahi du edozein erantzukizunetik. Hain zuzen, bere idatzia argitaratu nahi ez duen batzordea jotzen du erantzule. Hots, haren baitango taldea –berak *funesta escuela napoleónica* deitzen duena–, zeinen partaide ezagunenak Campion, Vinson eta *el mismo* Conde Charencey jotzen baititu. Beroien joera omen, Agirrereren hitzetan: “totalmente opuesta a la escuela clásica vascongada representada por Larramendi, y sobre todo por los Astarloa, Erro, Humboldt, Sanchez y el hoy eximio lingüista D. Julio sobre quien lanzan Vds. el anatema de la excomunión más absoluta considerando como extrafarias (extrafalarías?) y merecedoras de la más severa condena bajo el pretexto frívolo de que no quiere ocuparse sino del estudio de los hechos sin sacar más consecuencias que las *directas* y *prácticas*” (azpimarratua berea du).

Agirrereren azken hitzek arestian adierazitako bakardadea ez ezik haren etsikortasuna ere erakusten dute. Berak zientziaren alde egin nahi izan duela dio beti ere euskarari dion maitasun handiaren bidetik. Ordainak mingotsa dirudi:

No quiero entrar en las mil reflexiones que me sugiere la decisión de este comité que deploro con toda mi alma no tanto por lo que me atañe personalmente sino porque viene á matar las esperanzas que concibiera de que la nueva publicación sería como una poderosa palanca para el progreso de la ciencia y enaltecimiento del vascuence al que le quiero como á la niña de mis ojos lo mismo que á las instituciones y á mi pueblo.

## 1.6. Heriotza

1907. urtea amaitzear dagoela, abenduaren 29an, 75 urte dituela itzaliko da on Bizenteren bizitzako ibilbidea. Arestian ikusi dugunez, gure gizonaren azken urte hura ez zen samurra gertatuko. Agirre ohartua zen bere hizkuntza hausnarketek ez zutela oihartzun handirik Euskal Herrian orduko aztertzaileen artean. Bere heriotza dela eta, ohi denez, omenaldiak eta bestelako ospakizun garrantzitsu batzuek ihesi egingo diote eibartarrari. Izan ere, eta, tamalez, hastera zihoan urtean, Eibarren bertan, 1908ko Euskal Lore Jokoak edo *Fiestas*

*Euskaras* direlakoak ospatzekotan ziren. Lore Joko haiek, besteak beste, euskal giro bikaina iragartzen zuten herrian: hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak etc. Bestalde, Gipuzkoako medikuen elkarteak gorazarrea prestatua zeukan Agirreren urrezko ezteiak medikuntzan omentzeko.

Lore Jokoetara itzuliz, industriari gehienbat loturik prestatuak izan arren, euskara eta, orduan ulertzen zuten Euskal Literaturaz agintzen zen hitzaldirik. Hain zuzen, bi medikuk, Nizeto Muguruza eibartarrak eta Jose Madinabeitia oinatiarrak bigarren saria lortu zuten Jokoetako egitarauaren sariketan Villabella industriagizonaren atzetik.

### ***Ukatu kalea on Bizenteri***<sup>32</sup>

Inor ez omen da profeta bere jaioterrian. Horrelako zerbait gertatu zitzaion gure biografiatuari zendu ondoren. Hain zuzen, bera hil eta laster, on Bizente bezala ideologiaz errepublikanoa eta alkate izatera iritsiko den J. Ramon Iriondo zinegotziak, Agirreren ohoretan kale bat izendatzeko proposamena aurkeztuko du udaletxean. Ez omen du haren izena aurkezten bere ideologia politikoagatik, “no es por miras políticas”, biek ideologia berbera baitute, baizik eta: (...) “por tratarse de un gran nombre, un bienhechor de la humanidad y en esto únicamente se funda su proposición”.

Beste hainbat merezimenduren artean honako hau dio: (...) “don Vicente trabajó mucho y con gran provecho en la cuestión de higiene o sanitaria, que era un gran médico gloria de Eibar”.

Aipaturiko J. R. Iriondok eta Esteban Barrutiak, berau Eibarko Udalean izango den 1. zinegotzi sozialistak, berretsi egingen dute eskaria hiru hilabete geroago. Azken honek gure medikuaren bertuteak laburbiltzen ditu ondoko hitzetan:

(...) pues ha sido un hombre de gran valía y recuerda los méritos que contrajo en esta villa en tiempo de la viruela y el cólera, trabajos ejecutados por la higiene lo que ha sido causa de considerar como un gran higienista tal vez no para gloria Nacional, pero sí para la local y considerándole con méritos suficientes entiendo se debe perpetuar la memoria del finado con este pequeño recuerdo<sup>33</sup>.

Begitankorrek gaizki pentsa ez zezaten, Iriondo, Agirre bezala, errepublikanoa baitzen, proposatzaile biek, Barrutiak eta Iriondok, berretsi egin beharko dute eskaria ez dela “por cuestiones bastardas ó políticas” egiten.

Orduko alkatea Miguel Orbea jaunak dio, ostera, ordenantzen arabera erabakirik dagoela herriko kale bati pertsona baten izenik ez jartzeko. Gainera, (...) “ninguna calle puede ser denominada con nombre propio de persona fallecida dentro de un periodo de diez años”, bada, erabakia hartua omen du udalak esaten zaie aurkezleei. Izendapena, beraz, halako *impasse* batean geratuko da<sup>34</sup>.

Horrela geratu ziren gauzak. 1908. urteko eskaria ia ehun urte gero bete gabe gelditu da Bizente Agirreri degokionez. Beraren seme izan zen Ziriakok zori handiagoa izan zuen hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez.

32. EUA, 1908-02-05, 35. or.

33. EUA, 1908-05-05, 27-27a. orr.

34. Hemen ezin bazter noski, Orbeatarren eta Agirreren aldekoen artean egon zitekeen ezinikusia, bien ideologiak kontrajarriak baitzeuden.

## 2. ZIRIAKO AGIRRE ALBERDI

### 2.1 Eibar abiapuntu eta helmuga

1872ko abuztuaren 7an Eibarren sortu eta 1933ko uztailearen 30ean, zoritxarreko ezbehar baten ondorioz, hil zen gure bigarren biografiatua<sup>35</sup>. Ziriako Agirrek bere aitaren lanbide berbera izango du eta on Bizentek bezala, Eibar izango du abiapuntu eta helmuga bere bizitzan. Ziriako, Eusebia Gisasola Basterrarekin ezkondu zen. Berau ere Eibarren jaioa 1876ko maiatzaren 5ean. Lau seme-alaba izan zituzten. Haietariko bat Marina, gazterik hil omen zen orduko gaitz zabaldu batek jota: garrotiloak<sup>36</sup>. Badakigu, dena den, 1918an, artean 45 urte zituela, bere testamendua egin zuela Agirrek eta, bertan, hiru seme-alaba zituela aitortzen du: Vicente (1904-06-25), Maria de los Dolores edo Lola (1906-07-25), eta Ciriaco Jose (1911-XI-27).

Bere mediku bizitza Eibarko udalaren zerbitzuan 1900 urtean hasten da, Agirrek 28 urte dituelarik. Udal agintariek diotenez, aho batez: “Médico auxiliar de los titulares de esta villa” izendatua izango da. Urteroko soldata 1500 pezeta izango du. Ondo burutu bide zuen bere zeregina zergatik eze bederatzi hilabete beranduago, bikoiztu eginen baitzaio soldata. 3000 pezeta irabazten jarriko da gure biografiatua.

Baina beste hiru urte itxoin beharko du Ziriakok plaza lortu ahal izateko. Aita baino 43 urte geroago herriko sendagile ikusten dugu semea 1903an. Eibarrek bere hirugarren mediku titularra behar du, bere aita sartu zen garaian baino bat gehiago. Eta ez zen nonbait Ziriakoren garaian Eibarko mediku eginkizuna bazter uzten zen horietakoa. Egunerokoan irakurtzen dugunez, 40 eskari zeuden mediku lanposturako urte hartan<sup>37</sup>. Izendatua izan ondoren, on Bizentek beste lau urtez ikusi ahal izango du semea lanean heriotza etor dakion aurretik.

#### 2.1.1. Eibar: XX. mende hasierako aldaketa

Baina semeari datorkion herria beste bat izango da. Eibarrek gora egingo du nabarmen biztanle aldetik. XX. mendearekin bat biztanleriak gora egingo du nabarmen. Hain zuzen, 1900 urtean 6.500 biztanle inguru badira, handik hamar urtera %50etik gora igoa da populazioa 10.000ko kopurua gaindituko baita. Beraz, premiak ere beste horrenbeste igoko dira. Herriaren arkitektura azkar aldatuko da mendearen lehenengo urteetan. XX. mende hasiera hura, bada, ekimenez bete dator. Batzuk aski ulergaitzak, gure oraingo ikuspuntutik; esaterako, Untzaga-torre edo Oiñatiko Kondeen jauregi ederraren eraistea, udaletxe berria eraiki ahal izateko, antzinako beste zenbait etxeren desagertzearekin batera, herria ia ondare historikorik gabe utzi-ko du. Gauza zen, nonbait, udaletxe berria eraikitzearekin batera, leku zabal bat osatzea Untzagan<sup>38</sup>. Eta, ez da paradoxa, ekimen hori ustez aurrerazale den udalbatzar batek horrela erabakirik. Eztabaida luzeen ondoren, azkenean, Antonio Iturrioz buru den udalean berdinketa emango da: bosna boto hartuko ditu ideologia bakoitzak. Botazioan eskuinak jauregia ez eraztearen alde joko du eta, errepublikanoak, ostera, alde. Alkatearen boto erabakigarriak, arestian adierazi legez, mendez mende zetorren ondare baten suntsipena ekarriko du<sup>39</sup>.

35. Javier Unzetabarrenetxea adiskideari zor diogu jaiotegunaren zehaztasuna.

36. Familiak eskuratutako datua.

37. Udaleko agiriek egiaztatzen dutenez. Agirrek bere eskuzko eskaria 1903ko otsailaren 16an bidali zuen. (EUA, Expediente de plaza de médico titular, 1903, A.5.3) Garaiko prentsak ere ongi jaso zuen: VG (1903-03-02).

38. Beste horrenbeste gertatuko da San Juan ermitarekin Untzagan bertan. Halaber, Portalekua etxedorre zaharkituaren erauzketa-rekin. 1899an iragartzen zen: “Plazo de un mes para el derribo de la casa Torre de Portalekua” (EUA, 1899-04-05).

39. “Proyecto de reforma de la Plaza y paseo de Unzaga” deitzen zuten (EUA, 1900-05-28, 1899-1901 Akta liburua, 127a. or.). Gipuzkoako Gobernadore Zibilak azkar berretsiko du udalaren erabakia. Aldaketaren Eibar hartan baina, dena ez da txikizio izango, Estaziño eta Arragueta kaleen bitartean kale berri bat egingo da “kale barrixa” hasieran, gero Grabadores, eta, azkenik, gaurko Bitor Sarasketa izenak hartuko dituena, azken hau armagin ospetsuaren ohorez.



On Ziriako Agirrereren ohorez eraikitako oroitarria.

## 2.2. Osasunaren mundua

Baina itzul gaitezen bigarren Agirre-ren garaira. Eibarko medikuek izurriteen kezka egunerokotasun gordinean bizi dute. Orduko usteen arabera, gaixoari mesede handia egin liezaioke isolamenduak. Kari honetara horra 1899an eraiki lanetan hasi ziren Lazaretoa, aurki abian jarri nahi luketena. Geroago ari gara honetaz.

### *Ospitale berria eta Nafarretxea*

Antonio Iturrioz errepublikanoaren udal karguen azkenaldian, hots, alkate delarik (1897-1901), Asilo San Andres deituko duten ospitalea eraikitzeko dirua kudeatzen hasiko dira herrian. Herri barruan dagoena itxi eta kanpora atera berria. Haren erabilera baina ez da herrirako soil-soilik izango, eskualdea ere bereganatzeko asmoa baitu. Arauak edo aurre-arau batzuk eginak dituzte 1899rako: “El asilo de San Andrés tendrá carácter regional, cualquiera de los pueblos que actualmente constituyen el partido judicial

de Vergara”. Nortzuek izango duten bertan sarrera ere zehazten da: “Menesterosos incapaces de un trabajo personal que sea suficiente para proveer á su subsistencia, el amparo y la educación de los huérfanos no expósitos”.

Herritar ez direnek ordaindu egin beharko dute: “70 céntimos cada estancia que causen en el Asilo los pobres extraños de la localidad”. (“Bases para el régimen del Establecimiento de Beneficiencia”, 1899-04-04, 18. orr.)

1901eko abenduaren 30ean inauguratuko dute egoitza berria. Egun batzuk lehenago ospitale zaharra botako dute. Eraikin berria Antonio Iturrioz alkatearen azkenetako ekimena izango da. 1902ko urtarrilaren batean bere kargua utzi egin beharko baitu legearen arabera. Pozik doa errepublikano beteranoa, ospitalea eta udaletxe berria, besteak beste, bere agindupean burutu direlako, nahiz eta inoiz erabaki eztabaidatuak hartu, esaterako eta garrantzizkoena, Zuloagak hilezkortu zigun arestian aipatu dugun Untzagako etxedorre bikaina eraitsaraztea. XX. mende hasiera hartan bada, ospitalearen eraikitze-garai bertsean Nafarretxeari ere ekingo diote; aurretik iragarrita baitator: “Lazareto u Hospital de Contagiosos en construcción” (EUA, 1899-X-24, 74bis).

1901ean, berriz eta beste behin, izurriteek, oraingoan elgorriak, eraso gogorra egingo du udalerrian<sup>40</sup>.

40. Herriko maistren haur eskola bat itxiarazi behar izan zuten: “La escuela de párvulos de doña E. Alday fue cerrada por la Junta de Sanidad pues se presentaron casos de sarampión con carácter epidémico”. (EUA, 1901-01-14, 185. or.)

### ***Jardinetik Galeriara***

Baina egitasmoak ez dira hor amaituko. Tamalez, osasungintzak langile errime bat galduko du. On Nizeto Muguruza medikua heriotzak eramango du gazterik. 1920an trafiko istripu larri batek hilgo zuen Elgoibarren mediku aparta.

1926an tuberkulosia jasaten zuten gaixoentzako pabiloi bat eraikitzea proposatuko du Ziriakok. Udalak ideia jaso eta herri batzorde bat osatzen lagunduko du. Gure biografiatua izango da lehendakari eta Poli Larrañaga, apaiz sindikalista eta euskaltzalea, idazkari<sup>43</sup>.

Abenduaren 12an inauguratuko dute aipaturiko pabiloia. Dirua, beste behin, eibartarren poltsikotik atera zen. Eta nola gainera! Arestian aipatu dugu herritarren ahalegina *Jardin de Convalecientes* eraikitzeko asmoan. Bada, 1926 honetan ere, askoz gehiago izango da herritarren ekimenez emango dena erakundeen eskutik aterako dutena baino<sup>44</sup>.

Eraikina Ospitaleari atxikita ezarriko da eta, on Ziriakok dioskun bezala: (...) “en comunicación directa con el Asilo-Hospital donde puedan permanecer y ser atendidos los tuberculosos de esta villa de modo permanente, es decir una especie de Sanatorio-Hospital”.

### ***Hitzaldi baten lekukotasuna: Galeria***

1926ko abenduaren 12an aurreikusitako Galeriaren inaugurazio ekitaldia ospatuko da. Bertan gure biografiatuak hitz egokiak bezain larriak adieraziko ditu gaitzaren inguruan. Gure ustez esanguratsuenak diren pasarteak bildu ditugu hona. Hasteko, eraikina obra apala dela esaten zaigu: (...) “Nuestra obra es muy modesta vale muy poco y su repercusión ha de ser muy pequeña en la obra antituberculosa en general pero su significación es trascendental. Es el reflejo del esfuerzo de todo un pueblo que muy castigado por el azote tuberculoso procura librarse de sus males ya que de otro no puede por el momento con la caridad pública que es al fin y al cabo la que nos ha facilitado los medios para llegar á este acto”.

Estatistikek ez omen dute gezurrik esaten: (...) “Es cierto que las estadísticas de mortalidad por tuberculosis de nuestra villa son aterradoras y que reclaman solución urgente é inmediata. Las cifras que arroja sólo son comparables á las que dan los barrios más populosos y antihigiénicos de las grandes urbes. Mueren por tuberculosis en esta unos cuarenta individuos al año, la mayoría de ellos en plena vida que dan un promedio anual por cada mil habitantes de 3,5<sup>45</sup>”.

Zertako bada Galeria: (...) “La iniciativa de la construcción de esta Galería nació en los mismos enfermos tuberculosos; funciona en esta villa desde hace algún tiempo un Jardín para convalecientes construido como la actual debida á la iniciativa de los malogrados y queridos compañeros doctores Muguruza y Madinaveitia y en su reglamento se prohíbe la entrada en esta Galería á los tuberculosos por razón del peligro de contagio”.

Aurrerago tuberkulosiaren nolakotasuna dator zehazturik: (...) “La tuberculosis es el tipo de las enfermedades sociales, es decir de aquellas cuyo desenvolvimiento se halla unido á las  
con-

43. Batzordekide izango dira, besteak beste, Eugenio Bustinduy, Calixto Ciorraga, Mauricio Achotegui, Paciano Arosa, Antonio Embeitia, Ignacio Galarraga, José Guisasola, Facundo Guruceta, José María Ojanguren, Graciano Ormaechea, Isaac Sáenz de Viteri, Esteban Sarasua eta Antolina Ordoñana, Juana Villar, Juana Irusta eta Petra Elejalde andereñoak.

44. “Concepto de los ingresos” epigrafearen barruan honako datuak eskaintzen dira: “Auxilio del Estado 7.250 pesetas. Donaciones particulares 4.350. **Recaudado en festejos y espectáculos organizados 48.222**”. “Discurso leído por D. Ciriaco Aguirre en el acto de la inauguración, el 12 de diciembre de 1926”, EUA. (Beltzak gureak dira).

45. Geroago, gaztelaniazko bertsiotan beste datu batzuk ematen ditugu.



diciones de vida social y que tiende á invadir el conjunto de la colectividad, es enfermedad endémicamente más mortífera que todas las grandes epidemias y constituye por ello la amenaza más grave de la humanidad civilizada: el origen primero siempre es el bacilo de Koch, pero su desarrollo exagerado es debido á las condiciones en que vivimos que no fatalmente han de ser propagadoras de esta infección sino que son susceptibles de modificación en el sentido de impedir su difusión”.

### ***Osasundegia***

Ez dira horretan geratuko mediku eibartarrak eta urtebete beranduago, osasundegi edo sanatorio bat jasotzeko proposamena egingo diote udalari. Honek bere aldetik Espainiako Barne Arazoetako Ministerioari diru-laguntza bat eskatuko dio 1927ko apirilaren 13an aipaturiko osasundegia eraikitzeko. Urte bereko abenduaren 14an, Ignacio Anitua alkateak izenpetuko du Madrilen akordioa. Estatuak gastuen %50 ordainduko du, beste %25 Gipuzkoako Diputazioak eta, azkenik, Eibarko udalak eta hura erabiliko duten inguruko herriek ere beren ekarpenak egingo dituzte. Gaixoen zaintzaz arduratuko den eraikinak 40 gaixo artatuko ditu. Baina urteak beharko dira hura lanean ikusi arte. 1930ean inauguratuko dute. Haren kudeaketarako Batzorde administratiboa osatuko dute Timoteo Zubiare alkatearen inguruan, urte bereko uztailaren 10ean. Bertan dira Ziriako Agirre eta Isaac Sáenz de Viteri medikuak eta Martín Erquiaga, Benjamin Villabella, Paciano Arosa, Policarpo Larrañaga eta Antolina Ordoñana batzordekideak. Erizaindegia 16 gaixorekin hasi zen: 10 gizonezko eta 6 emakumezko. Felisa Ventura zen, bestalde, praktikante lanetan aritzen zena. 1979 urtera arte iraun zuen delako osasundegiak<sup>46</sup>.

#### **2.2.2. Adolfo Fundazioa: Haurrentzako itsas udalekua**

Orain artekoak jaulki ondoren ba ote zalantzarik Eibarko herritarren ekimenak bultzarazi ohi zituen egitasmoen eraginkortasunaz?

Arestian aipatuak izan dira, hurrenez hurren, Eriondoen Jardina, Pabiloia eta Tuberkulosiaren kontrako Osasundegia, gure arbasoen hiru gauzatze bikain.

Baina osasunaren aldeko ekimenen artean haurren munduak leku gailena hartu ohi zuen. XX. mendeak bulka berezia zekarren arlo honetan. 1910ean Arrateko lehen udalekuak antolatuak izan zirenetik lanean jarraitu beharra zegoen. Haiek arrakastatsuak gertatu baziren ezin bide hartan etsi. Bestalde, herritarrek laguntzen zutela esan berri dugu, baina dirua zue-nari ere, bazerion eskuzabaltasuna. Hain zuzen, 1913ko apirilean, Ziriako Agirrek bere anaia gaztearen deia izango du Almeriatik. Adolfo sei hilabete omen daramatza Andaluzian, pentsa liteke bere meatzetako ingeniari lanean. Oso gaixo omen dago. Ziriako bertaratzen delarik, anaia biak itzuliko dira. Larri baino hobeto iritsi ei zen jaioterrira gaztea. Baina handik gutxira hila behar du, gazterik 28 urtez, uztailaren hasieran beste albiste bat, arras desberdina, irakurriko baitugu. Josefa Alberdi amak 1.000 pezetako diru-laguntza emango du, bere seme hil berriaren oroitzapen bezala: “para que el Ayuntamiento organice una Colonia de niños pobres y los mande á una playa” (VG, 1913-07-08).

---

46. Datu hauek Eibar aldizkaritik jaso ditugu (EA, 1959). Bestalde, Martínez Sostre medikuari irakurtzen diogunez, hasieran, monarkia garaia izaki, “Victoria Eugenia” deitu zen osasundegia, Errepublikaldian, oster, “Servicio Antituberculoso-Enfermería de Eibar” eta, militarrek hirian sartzean “Sanatorio Nueva España” izena ezarri zioten. (M. Martínez Sostre, *Geografía Sanitaria de Eibar*, Icharopena, Zarauz, 1954, 123. or.).

### ***Labaderoak eta estufak***

Herriarren osasuna zaintze aldera, beste eztabaida puntua herrian barreiatuak zeuden ikuztoki edo garbitokiak genituen. Isasin, Ardantzan, Matxarian, Ubidietan, eta beste hainbat lekutan, herrigunetik kanpo, nolabait esateko, eraikitzea normalizat jotzen zen. Kokagune hartan onartzen ziren nonbait baina *herriaren barruan* zeudenekin arreta berezia eskatzen zen. Horregatik zenbaitek Portalean dagoena kutsaduragunea dela dio eta handik kentzeko. Beste horrenbeste Barrenkalen egin nahi denari ezetz esaten zaio. Udaletxean eztabaida sortzen da. Lau zinegotzik herriko medikuekin hitz egin ondoren han ez eraikitzeke diote. Baina labaderoak ezinbesteko ziren ur korronterik ez zen garaian. Ziriako Agirrek 1909an eraikuntza haiek bete behar zituzten baldintzetako batzuk adierazten zituen:

Deben construirse lavaderos higiénicos con agua corriente, pero de tal manera que el agua que se haya empleado en un lavadero no pueda utilizarse en otro<sup>41</sup>.

Artikulu berean Agirrek estolderia eta ur hornikuntza egokia aldarrikatzen zituen. Kortazar udal arkitektoak etxe bakoitzera iritsiaraziko zen hoditeriak arazoa konponduko zuela berresten zuen.

Zaindu beharreko beste alor bat gaixoen desinfekzioa izan ohi zen. Haien arropetatik hasita. Ziriakoren aitaren garaiaz aritu garelarik, orduko udalerrien arazoak aipatu ditugu izurriteak euren herrietan sar ez zitezen. Bada, desinfekzio estufen betekizuna oso garrantzizkotzat jotzen zen. Pertsonak eta gauzak desinfektatzeko. Gauzak horrela, 1911. urte hasieran, gure Agirre, Federico Muguruza eta Eugenio Curia jaunek osaturiko herriko Osasun Batzordeak horrelako estufa bat eskatzea onartuko du. Berau herriaren sarreran ezartzea erabaki zuten. (EUA, 1911-01-02, 10. or.).

## **2.2.1. Osasuna babesteko beste hiru ekimen**

### ***Eriondoen jardina***

Eibarko herritarren osasunaren aldeko ekimenak etengabeak izango dira XX. mendean zehar Agirre bizi den artean. Ez da zaila beraien berri kronologikoki ematea.

Garai hartan tuberkulosia beldurra sortzen duen gaixotasuna da. Estatistikak beldurgarriak dira. Gauzak horrela, 1909an izugarritzko kanpaina bultzatuko dute herriko indar biziak. Nonbait aire garbi gabeziari lotua dago eritasuna. Kari honetara, zerbait egin beharra dago. Hasteko, herrigunetik hurbil baina aire garbia eta lasaitasuna arnas daitekeen lekua aurkitu behar da. Helburua: gaixoen atsedena eta arreta berezia. Dirua biltzeko ekintza ugari eta era askotakoak abiaraziko dira. Eibar mobilizatu beharra dago. Herritarren arteko ekimenak etengabeak dira. Zozketak, berbenak, kontzertuak etab., jomuga, zenbat eta diru gehiago biltzea lehenbailehen. Helburu hori zuela, urte berean on Nizeto Muguruza herriko beste mediku eibartar titularrak hitzaldi erabakigarria egingo du. Bertaratu ziren agintariek biziki txalotu eta aintzat hartu zuten bertan aurkezten zena. Bada, 1910. urtean Eriondoen Jardina, hots, sendatzeaz dauden pertsonak suspertzeko eraikin xumea prest izango dute<sup>42</sup>.

41. Ikus Eranskinean, "Una conferencia", VG, 1909-01-25

42. Gregorio Mugicak "Instituciones Sanitarias" epigrafepean 1910. urtera bitartean egin ziren eraikinei berri zabala ematen digu (GM: 300-304 orr.)

Udalbatzaren aurrean egiten denez eskaintza, hark berehala ekingo dio haur pobreen-tzako Adolfo izeneko udalekua antolatzen. Zinegotzi guztiak ez ezik herriko sendagile eta herritarrek ere bat zetozen egitasmoarekin.

1915ean osatu zen nonbait lehenengo txanda. Bigarrenerako 1916ko udaberrian, diru-premia nonbait, ohi bezala Astelena frontoian jaialdia antolatu dute<sup>47</sup>.

Haur gaixo pobre haiek lehenengo udalekua Pedrosan, Cantabrian, igaro zuten. Haurrak joaten zirenean baino askoz hobeto itzultzen omen ziren. Ez da arraroa on Nizeto Muguruzak beraien osasunaz jakinarazten dizkigunak irakurri ondoren:

Hona hemen pasarterik jakingarrienak, gure ustez:

“La llamada colonia marítima Fundación Adolfo, llamada así en memoria del malogrado ingeniero de minas y querido amigo nuestro que en su última voluntad quiso aliviar la misérrima situación de los niños desheredados de la fortuna fisiológica, legando un donativo que constituye la base de la fundación”.

Eta jarraian udaleku haien helburuak zehazturik zetozen:

El próximo verano será la segunda vez que se envíe un grupo de niños seleccionados á recibir la bienhechora influencia del aire de mar. La última vez los vimos partir abatidos por las taras fisiológicas, macilentos y enclenques y hubieron de regresar del Sanatorio de Pedrosa notablemente tonificados física, moral e intelectualmente. Nuestro deseo es que el próximo verano se pueda ampliar en número considerable las plazas de la Colonia, puesto que con harta conmiseración tenemos que abandonar á su suerte muchos niños que dado su organismo débil, sus escrófulas, su anemia, en fin la miseria orgánica que parece pregonar á gritos al exhibirse en sociedad, la necesidad de buena alimentación, de sol vivificador y la pureza del aire marino.

(“Por la colonia marítima”, VG, 1916ko martxoa)

Halaber, Vicente Villarrek, *Illarguia*, herriko beste medikuaren ezizena, beste ondoko hau zioen aipatu berri dugun artikuluko beraren ondotik. Bizi-filosofia sakona zerion haren pentsamenduari:

Pueblo que ampara al viejo y protege al niño, es pueblo culto. (...) Todos los pueblos adelantados fundan instituciones que defienden al niño física y moralmente, como son las leyes de protección á la infancia, escuelas foebrelianas y de anormales, cantinas y colonias escolares.

### ***Lan taldea***

Arestian aurreratu dugun bezala, ez zen alajaina Agirrereren sasoian mediku ekimentsurik faltako. Hasteko esan beharra dago Eibarko medikuak prest izan ohi zirela beren alorreko esperientziak jakinarazi eta era berean datu trukaketa egitera. Tuberkulosia izanik gaixotasun larrietako bat, maiz ikusiko ditugu gure sendagileak gaitz haren inguruan informazioa biltzen. Esaterako, 1912ko irailean, Donostian ospatuko den Tuberkulosiaren Nazioarteko II. Biltzarrera, Niceto eta Federico Muguruza, Ziriako Agirre eta Vicente Villar medikuak bertaratuko dira. Liburu honetan ia agertu ez den Federicori buruz esan, haurdunaldietan eta, oro har, emakumeei propio zegozkien eritasunetan zela aditua, beste biak, berriz, Niceto Muguruza, (1882-1920) eta Vicente Villar, Ziriakoren koinatua eta bera bezala urte berean, 1933an, hila,

47. Egitarau xume bezain sentibera eratu dute. Pianojole batek, biolin-jotzaileak eta baritono batek hartuko dute esku. Asti beterranoa, bera ere, 61 urte beteak dituen arren, prest dago bere munduan zeharreko kantaldiak oroitarazteko.

sendagile aurrerazale edo progresistatzat jo ditzakegu<sup>48</sup>. Lehenengoa Udal Laboratorioko zuzendari, bigarrena, Ziriakoren ezkon-anaia adierazi bezala, bere mediku zereginetatik kanpo noizbehinka idazlea egunerokoetan. Bestalde, adierazi dugun legez, Muguruzaren heriotza goiztiarrak bere lanbidearen inguruan ez ezik gizartearen gainerako gaiez ere arduratu ohi zen pertsonaia jakintsua, langilearena, alegia, laburbilduz, kultur berrikuntzei arreta berezia jartzen zien medikuaren galera ekarri zuen. Bere zenbait artikuluk garaiko prentsan ez dute egun ere interesik galdu. Herriak harrizko oroitarria eskaini zion bere esker ona adieraziz.

Agirrerengana itzuliz, herri mailako karguez aparte, osasun ikuskariorde aurrenik eta ikuskari gero izango da medikuen izenean. Halaber, Gipuzkoako Mediku Elkarteko zuzendaritza taldean ere arituko da<sup>49</sup>.

### 2.3. Agirre espetxeraturik

1916ko maiatzean Ziriako Agirrek Suitzako Bernara abian jarri zuen bidaiak ez zuen zarata makala atera! Gauza da bi helbururekin irten zela Eibartik gure biografiatua. Lehenengoaren zioa berak aitortzen digu ondoko hitzetan: “Mi viaje á Suiza tenía por objeto acompañar á un compañero y pariente enfermo de pecho, que se dirigía á Davos á tratarse bajo la dirección del doctor Stont”<sup>50</sup>. Baina helburu demagun filantropikoarekin batera bada bidaiaria hartan beste merkataritzazko jomuga bat ere. Izan ere Agirrek eibartar merkataria batek bere Hamburgoko saltzaileari hurbilarazi behar zion gutuna eramane behar zuen, hots, banketxe aleman bati zuzenduriko txekoa. Ea itzulinguru haren bidez berez, gerra zela eta, zuzenean ezinezkoa zena lortzen zuen, hots, zor zitzaion dirua eskuratzea. Baina ez dezagun ahaztu, Munduko 1. Gerra Handi eta doilorra bere gogorrean zen. Bada, germanoa zen oro izugarritzko erreakzioa sortarazten zuen Frantzian. Edozein modutan, Agirrek berak aitortu zien Hendaia poliziei aldean zeraman gutunaren nondik-norakoa. Gaztelaniazko bertsioan ematen digu atxiloteta hark sortarazi zuen habarrotsa, nork protagonismoa gehiago izan nahi zuen haren aldeko ahaleginean. Gauza da, eta orduko berriei jaramon egiten badiegu, Gipuzkoako Diputazioak, Madrileko Kanpo Arazoetako funtzionarioek, Espainiaren Parisko enbaxadak etab., eginahalak agertuko zituztela medikua lehenbailehen aska zezaten.

Ziriako Agirre hamabost egunez egongo da preso Baionan. Epaiketa egin zitzaion eta bertan Agirrek bere erruduntasuna aitortu ez ezik bere Frantziaren aldeko xera eta betiko lerratze politikoa ere berretsi zituen behin eta berrero. Hamar eguneko espetxe zigorra ezarri zioten baina kontuan izanik egunok igaroak zituela atxiloturik libre utzi zuten besterik gabe.

Ez zuen denbora alperrik galdu Agirrek espetxean. Bertatik hainbat artikulua idatzi zuen. Bere buruaren orduko egoera nahasiaz kanpo ez zuen, atxiloturik ere, medikuntzak garai hartan zituen erronkak ahanzten<sup>51</sup>.

48. Estatuko zein atzerriko aldizkariak jasotzaile fidelak zituzten Agirreraren zirkuluan. Bestalde, Agirrek bezalatsu, on Nizeto Muguruzak asko idatzi zuen medikuntzaz baina baita ere arteaz eta zernahi gaiez. Haren *Contribución al estudio de la etnogenia vasca*, bera hil ondoren *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratua, hizkuntzaz, antropologiaz, erlijioaz etab., burutu zuen artikulua bilduma bitxia dugu. (EE-11-1921; 125-136, 171-186 eta 226-233. orrialdeak). Dena den, bertan, beste edozein balioesteren aurretik, Muguruzak belaunaldi haren jakin-egarria adierazten digu. Villarrek, berriz, *Illarguia* ezizenez bere langintzari zegozkion artikulua idatzi ohi zituen prentsan. Agirre baino hilabete beranduago hil zen 62 urterekin.

49. Ahantzi gabe, garai hartan medikuak ere, herri mailan osatu ohi ziren irakaskuntza batzordeetako partaide izan ohi zirela, hots, *Juntas de Instrucción Pública* haietakoak, zeintzuk gizarte estamentalaren arrasto garbia baitziren.

50. Ez dirudi oso ohikoa, egungo gaztelanian behintzat “de pecho” esamoldeak, Eibarko euskarari, oster, ohikoa zen **petxukoa dauka** esatea, gaitz tuberkulosoak norbait inarosten zuenean.

51. “En mi celda” izenburupean VGan argitaratu zituen hiru artikulua (1916ko maiatzaren 20, 24 eta 25ean) Beste bat “Mi gratitud” 28an. Egun batzuk lehenago “con el reputado doctor don Heraclio Echeverría” doala bidaiari esaten da VG bertan. Berau ote zen gaixoa? Agirreraren “compañero” hitzak Etxeberria bera zela bidailaguna garbi uzten du.

## 2.4. Ziriako Agirre politikagintzan

Politikagintzan bere liberalismoaren aldeko jarrerak bere aitak bezalatsu errepublikanismoan sartzeraz bultzatuko du. Ideologia hari atxikirik zenbait ardura izango ditu herriko *partidu errepublikano autonomo* deituan, ondoko lerroetan zehazten dugun legez. Hasteko, herriko Errepublikanoen Gazteria taldearen buru izango da. Oro har, herri mailan bada, ideologia hura bultzatuko du aiantzi gabe munduan izango ziren gatazkak. Haien inguruan bere ustez justiziaz aritzen zirenen alde jarriko da. Horrela gertatuko da Munduko I. Gerra Handian, Frantziaren alde eta Alemaniaren aurkako jarrera erakutsi baitzuen. *Liga Antigermanófila* izen arranditsu horrek eibartar ezagun asko bilduko ditu bere barruan. 1917. urtea zen eta, diogunarekin ezin hobeto uztartzen da, orduan osatu zen laguntza batzordean arestian aipatu ditugun hiru mediku titularrak daudela badiogu. Agirrerekin batera, Muguruza eta Villar ikusten ditugu. Medikuak beraz, arestian esan duguna gogoratu, herriko aurrerazaleen buruan. Munduan, zientzian eta, kulturari, oro har, egosten zen orok ez zituen zabar uzten.

Bere aitaren haritik on Ziriakok liberalismoa eta errepublikanismoa zituen ardatz bere ekimen politikoa. Ez zen, pentsa daitekeenez, jarduera etengabea izan. Agirre bere lanbideak uzten zion heinean politikan aritu zen, garaian garaiko konpromisoak hartzen zituela bere ideologiaren arabera. Gauzak horrela behin baino sarrago ikusiko dugu eibartarra harea politikoa hautagaitza konkretu batzuen alde edo bere burua politikaren betekizunera aurkezen. 1909an, Gipuzkoako Diputaziorako hautagai, 1917an berriro, eta, azkenik, 1920an, udal hauteskundeetara. Eranskinean ematen ditugu beroien berri zehatzagoa.

## 2.5. Debako itsas-istripua eta heriotza

Aurreratu dugun bezala, Ziriako Agirreraren heriotza itsasoan jazoko da bere herritik kanpo. Gauza da 1933ko uztailaren 30ean, igandez, Loiolako Inazioren jai bezperan, eibartar lagun talde bat Deban gertatu zela. Pilota partidak amaiturik batzuk bafore batean Mutrikura joan-etorria itsasoz egiteko asmoz *Jesus* izeneko ontzira igo ziren, beste batzuk apustuak kitatzen geratzen ziren bitartean. Tostan zihozazenen Mutrikurainoko bidea ondo joan zen baina itzulaldian gertatu ziren komeriak. Itsasontzian zihozazenen lekukoek diotenez, zantzu txarrekin hasi zen itsas txangoa: hura bide erdian matxuraren batengatik edo gelditu egin omen zen eta. Orduan arraunean hasi ziren etortzen. Deba bistaratu zutelarik berriro ere abiarazi zuten motorra. Baina, tamalez, herriko barran gelditu egin ei zen. Gauzak okertzeko, une hartan olatu handi batek astindu eta beste bigarren batek irauli egin zuen baforea. 26 lagun omen zihozazenen tostan, patroia eta makinista barne. Han, hainbat senide eta herritarren begi asaldatuaren aurrean, itsasoak 13 lagun irentsi zituen<sup>52</sup>.

Eibartarrak, informazio iturri desberdinen arabera, sei edo zazpi izan omen ziren galdu zirenak. Beraien artean gure Agirrez kanpo, Julian Gárate Iparraguirre, 68 urte, Eibarko izen bereko GAC enpresako kudeatzailea zegoen eta Luis Gárate Arrillaga 27 urteko armagina Millafrasen bizi zena. Emakume eibartar bi ere baziren itoen artean: haurdun zegoen Irene Uriguen 27 urtekoa eta Paula Zubirrementeria Marquina, 26 urteko estankoduna. Ostera, salbatu ziren eibartarren artean, haurdun zegoen I. Uriguenen senarra, Tomas Navarro izeneko eta igerian salbatu zen Juan Iriondo Eibarko udal-epailea ikusten ditugu. Jendearen estutasuna eta egonezina handia izan zen. Ordu batzuk pasatu eta gero artean ustez hildako bik desagerturik jarraitzen baitzuten.

52. Nahiz eta datuak bat ez datozen beti. 14 lagun ito zirela ere esaten baitzen. Guk egun bereko Donostiako *La Voz* eta *El Pueblo Vasco* kontsultatu ditugu (1933-08-01). *La Voz*-eko xifretan 11 gorpu aurkituak eta beste bi, orduan oraindik aurkitu gabeak, zenbatzen ditugu. Beraz, 13 guztira.

Ito zirenen artean Espainiako barrualdeko hainbat neskame zeuden, beroien artean bi Valladolidekoak eta beste bana Badajoz eta Madrileko probintziakoak. Igandea izanik jai bairteukaten. Bestalde, Barakaldoko emakume baten izena ageri da zerrendan baina ez zaio zehazten lanbiderik. Consuelo Autier izenekoa da. Bergarako 17 urteko mutil baten gorpua aurkitua izanen den azkenetakoa da. Dionisio Castro zuen izena.

Eibartarra omen zen, halaber, baina lehen orduetan ito ote zen baietsi gabe zegoen, Anselmo Cortabarría, orduan Mendexan bizi zena. Desagertutzat jotzen zen baita ere Azpeitiko 26 urteko Pascual Arrieta. Ostera, beste iturri batzuek azken hau eibartarra zela esaten zuten (*El Pueblo Vasco*-k).

## 2.6. Herritarren oroitzapenak

Gure medikuaren diru egoera ez zen txarra izan behar. Udal-soldataz aparte Agirre ondare sendoaren jabe zela egiazta dezakegu. Horren adierazle izan daiteke ondoko anekdota. 1908 urtearen hondarrean, Agirrek udalari jakinarazten dio zein onuragarri izango litzatekeen X izpidun aparatoa erostea. Su-iskiluekin istripuak gertatzen direla maiz herrian eta, egokia litzatekeela aurrerapen horren jabe izatea. Baina oharturik zein garestia gerta dakiokeen udalari erosketa, orduko 2000 pezeta inguru, Agirrek berak erosi lukeela dio eta gero udalak berari dirua itzuli korritu apal baten truke<sup>53</sup>.

Ez dago esan beharrik Agirretarren garaiko mediku estatusa gaur egungoaren aldean beste maila bat gorago zebilela.

### *Pasadizoa*

Esanak esan, Ziriako Agirrereren bizitza gorabehera handirik igaroko da bere lanaren eta bere zaletasunen artean. Medikuntza zeinetan Eibarko orduko bizitzan herriarengandik oso hurbil bizitzea egokitzen baitzitzaion. Ezagutu zutenek gogoratzen dute on Ziriakoren ibilkerara pausatua, jantzi dotorez, ohi zen bezala, herritarren berorikako tratua jasotzen. Bere aita-rengandik hainbat pasadizo jaso baditugu, egiazkoak edo herriak aldaraziak, zer axola du, gauza da on Ziriakok ere utziko zizkigula bereak. Esaterako, harako neskatoarena zeina amarekin gure medikuarengana urreratu baitzen, nobedadeak zeuzkalako edo. On Ziriakoren galdera zuzena: –Zeñekin ibilli haiz? –Ni iñokin be'z jauna –erantzun neskak. Medikiak, orduan: –Hamen bigarren Amabirjiñia!

### *Lekukotasuna*

Ez zen Ziriako Agirrereren heriotzaren oihartzuna berehala itzali. 30 urteko langintzak arrasto ez nolana hikoia utz zezakeen. Eta horrela izan zen. *El Pueblo Vasco*-k heriotzaren berri emateaz batera, ondoko panerigikoa egiten zuen. Laburbilduz hauxe zioen:

Su gran sentido clínico fue muy admirado por eminencias como el doctor Urrutia y en el seno del Colegio de Médicos de Guipúzcoa su prestigio era indiscutible por su competencia y su

53. "El Sr. médico titular D. Ciriaco Aguirre expone verbalmente al Sr. Presidente sobre la necesidad de adquirir un aparato de rayos X para las necesidades de esta villa, en atención á que vienen sucediendo con frecuencia desgracias por disparo de armas de fuego, el Ayuntamiento consideró de necesidad la adquisición de ese aparato que según manifestó vale próximamente dos mil pesetas, cuya suma, visto no existe consignación en presupuesto del próximo año, está dispuesto dicho Sr. Aguirre, á anticipar al Ayuntamiento previo un módico interés y á pagar en presupuesto siguiente. En su consecuencia se acordó se le autorice al mismo Sr. Médico su adquisición". (EUA, 1908-XII-31)

probidad ejemplar. El doctor Aguirre se distinguió también por su curiosidad científica, que le mantenía en contacto con los sucesivos progresos de la Medicina, en una admirable contemporaneidad que no suele darse en los médicos veteranos.

Se destacó asimismo al servicio de la lucha antituberculosa que tanto le preocupaba como médico y como eibarrés; y su laboriosidad y competencia se extendían al extremo de dedicarse igualmente a trabajos de bacteriología que realizaba personalmente, sin recurrir a los Institutos especializados.

Haren heriotza gertatu eta laster, abuztuaren 10ean, bere izena jartzea erabakiko du udalbatzak Tuberkulosiaren Kontrako Osasundegiari.

Baina zalantzarik gabe herritar soil askok gogoratuko du era berezi batean. Hain zuzen, beraren omenez bat baino gehiago izango dira, sarreran aurreratu dugun legez, Eibarren garaiko haur jaio berriek jasoko dituzten Ziriako zein Ziriaka izenak. Bestalde, Bizente Agirre aitari ez bezala, ez zion inork kale izenik ukatu. Hain zuzen, aro postfrankistaren hasieran, 1976ko udalbatzan Amaña auzoko E kaleari Ciriaco Aguirre izena jartzeko mozioa aurkeztu zen. Azkenik, 1980an udal agintariak eta herriko notable talde batek kale-izendegia finkatzeko egin zuen bileran, grafia euskaratzea proposatu zuen. Harrezkero Ziriako Agirre kalea izanen dugu hirian<sup>54</sup>.

---

54. EUA, B 21.1 V, B21.2V

### 3. VICENTE AGIRRE GISASOLA (1904-1954)

#### 3.1. Ingeniari bat mediku artean

Agirretarren itzala luzea izan da XIX-XX. mendeetan eta, zorionez, egun ere haria ez da eten. Baina joan gaitezen urratsik urrats. Bizente eta Ziriakoren ondoren, Agirretarren leinuan hirugarrena dugun Vicentez hitz egin dezagun apur bat. Aitonaren izen berbera zeraman gizon hau, 1904ko ekainaren 25ean jaio zen Eibarren eta ingeniari ikasketak burutu zituen. Gero Bizkaiko Diputazioan bide ingeniari lanpostua eskuratu zuen. Herminia Errasti eibartarrarekin ezkondu zen.

Gaztaroan beste hainbati bezala giro inoiz itxaropentsua beste inoiz etsipengarria bizitzea suertatu zitzaion. Jakin badakigu familiaren tradizioari jarraiki errepublikanismo politikoan jardun zuela, batez ere Espainiako II. Errepublikak eztanda egin bezain azkar. Gero Espainiako Gerra Zibilak ekarri zuen hondamendiaren ondoren itsasoz bestaldera alde egin behar izan zuen segurtasun bila. Agirretarren ondare oparoa pikutara joango da. Ihesi doaz bada, Euskal Herritik beste hainbat euskaldun bezala Ameriketara bertan zer aurkituko duten jakin gabe. Hantxe jaioko zen gure Agirretarren biografia honetan medikuen artean hirugarren belaunaldia osatuko zuen Ziriako Agirre Errasti. Baina nolabaiteko etenaldi txiki bat eginen dugu sendagileen mundu honetan. Gure oraingo Ziriako honen aitaren zenbait pintzelkada eransteari egoki iritzi diogu. Horrela bada, lanbidez medikuntzarekin zerikusirik izan ez zuen Vicente Aguirreri eskainiriko bi aipamen ekarri ditugu garaiko hemerrotekatik jasoak. Arestian adierazi dugun bezala, Agirretarren lorrats politikoari jarraituz, esan dezagun ingeniari bidea hautatu zuen gizaseme honek hainbat mitinetan esku hartuko duela Espainiako II. Errepublika garaian. Beroietan Vicente gizon sentibera, kultoa eta, batez ere, garaiko egoera politikoaz oso arduratua azaltzen zaigu<sup>55</sup>.

---

55. Ikus eranskinean, haren hitzaldi-mitinei buruzko aipamenak 4.2. eta 4.2.1. epigrafeetan.



## 4. ZIRIAKO AGIRRE ERRASTI

### 4.1. Haurtzaroa

#### *Jaio eta Argentinara*

1937ko ekainaren 19an jaio zen Bilbon. Baina berak dioen bezala, hura “istripua” izan zen. Aita Bizentek Bilbon ziharduen, setiaturik aurkitzen zen Bizkaiko hiriburuan, burdinazko hesiaren antolaketan, hain zuzen, artean kapitaina zen Alejandro Goicoechea, Talgo tren artikulatuaren egilea, gero ingeniari traidorea deituko zutenaren zerbitzuan. Hau da, Goicoecheak legez-kotasuna traditu zuenean amaitzen hasi zen gerra Agirretarrentzat eta beste euskaldun askorentzat. Frankisten eraso zela eta, egoera geroz eta jasanezina bihurtzen ari zelarik Amerika aldera jo zuten Agirre-Errastitarrek haur txikia altzoan hartuta. Beste hainbat euskaldun eta iheslarik bezala, Buenos Airesen zuten hitzordu. Han jaioko dira beste hiru anaiak. Bertan burutuko ditu Ziriakok Batxilergo ikasketak. Ikasketa haiek amaitzeko denbora izango du Agirre gazteak, laster Penintsulara itzultzeko garaia etorriko baitzaie.

#### *Zaragoza*

Ez zen samurra izan itzulera hura. Hasteko, aita urtebetera hil baitzitzaion. Baina hizketan doinu argentinarra zekarren mutil hari beste ezuste bat zetorkion. Debeku eta intolerantzia garai hartan Espainiako Hezkuntza Ministerioak, bi urtez inolako erantzunik eman gabe euki ondoren, halako batean mutil gaztearen Argentinako batxilergo ikasketak ez zizkiola balio-kidetuko adierazi zion. Are gehiago, Agirretarren anaia nagusiak batxilergoaren 4. urtea eta errebalida, 5. 6. eta orduko Preu egin behar izango zituen. Eibarko egonaldi laburraren ondotik, Zaragozan bizitzen jarriko dira Agirretarrak. Gauzak horrela, 21 urterekin ekin zion Agirre gazteak medikuntza ikasteari. “Aitona” deitzen omen zioten ikaskideek. Baina gure biografiatuak ez zuen denbora galdu. Haren harrezkerozko ikasle ibilbidea izugarri aberatsa izango baita. Zer nahi duen garbi daki, medikuntza odolean daraman ikasle hark. Lizentzia Zaragozako unibertsitatean lortuko du 30 ohorezko matrikula erdietsiz. Eta hura gutxi balitz Ramon y Cajal sari berezia.



Ziriako Agirre Errasti hitzaldi bat eskaintzen Euskal Herriko Unibertsitatean.

## 4.2. Ibilbide oparoa medikuntzan

Ikasle ibilbideari lan jarduerak jarraituko dio. Eta orduan ere Agirrek ez du nolana hiko curriculum agertuko. Baina aurretik Madrilen burutu beharko du ezinbesteko MIR delakoa bere bizian zehar izango duen espezialitateari lotuz: Barne Medikuntza. Huraxe izango da Ziriakoren xera. Madrileko Puerta de Hierro klinikan arituko da. Une hartan aurreikusten dira ongi gure medikuaren helburu bereko bi norabide profesionalak: irakasletza eta ikerkuntza. Madrilen bertan, Unibertsitate Autonomoa delakoan, 1969tik 1972ra irakasle lanetan arituko da eta era berean arestian aipaturiko klinikan Barne medikuntza saileko atal-buru agregatua izango.

Euskal Herrirantzako grina ez zaio baina atertuko eta Bilbora itzulirik Gurutzetako ospitalean Barne Medikuntza saileko buru izendatuko dute, betekizun hura EHUko unibertsitatean Patologia eta Medikuntza kliniko sailean irakasle agregatu-kontratatu lanarekin uztartuko duelarik. 1974an EHUko unibertsitatean bertan doktore gradua erdietsiko du, eta, azkenik, katedra aipaturiko diziplinan 1986ko otsailean.

Bere ikerketa lanetan Ziriakok izan dituen merezimenduak kontaezinak dira. Ikertzaile nekagaitza, han hemenkako ikerketaguneetan harreman eta esperientzia trukaketa aberasgarria izan du. Horren guzti horren lekuko dira dituen hainbat eta hainbat ohorezko aipamen eta kargu izendatze. Ez ditugu denak aipatuko gure biografiatuaren apaltasunak ez baitigu uzten. Hona hemen, dena den, beroietako batzuk:

EHUko ikerkuntzarako taldeko batzordekide. Zaragozako Medikuntza Erret Akademiako urgazle. Euskal Herria, Aragoi eta Errioxako Barne Medikuntzako presidente. Espainiako Barne Medikuntza Elkarteko presidente ere izana da, era berean, International Society of Internal Medicine-eko partaide 1976an. Euskal Erkidegoko Osasun Saileko birigaitzaren adituen batzordekide eta beste edozenbat ohore eta merezimendu. Horra bere burua eibartartzat daukan Agirretarren ezpaleko gizaseme honen ibilbide aberatsa.

## 5. JOSE MIGEL AGIRRE ERRASTI

Jose Migel, bere anaia zaharrena bezalaxe, atzerrian, Buenos Airesen jaio zen 1945eko maiatzaren 27an. Atzerritik etorri eta Zaragozan bizitzen hasiko direlarik, Ziriakok bezala medikuntza ikasketak egingo ditu Aragoiko hiriburuan. Eta hark bezalaxe Barne Medikuntza ikasiko du.

Fisiologia orokorra, Biokimika eta fisiologia berezia ikasiko ditu. Lizentzia 1975ean lortuko du. Barne Medikuntzako alor guztiak ukitzen joango da errotazioen bidez prestaketa zabala erdiesten duelarik.

Gaixoen artatze lanak eta irakaskuntza tartekatuko ditu San Antonio deritzon Osasun Esparruko Barne Medikuntza Sailean. 1972tik 1976ra.

1976an Barne Medikuntza Sailean mediku laguntzaille izango da. 1977tik 1990 urte arte oposizio bidezko mediku laguntzaille izendatuko dute Zaragozako Miguel Servet ospitalean.

Ordurako 1984an, Infekziosoen Unitatea abiarazteko agindua hartua du. Ordudanik betekizun horretan dihardu besteak beste.

1990tik 2005era arte ospitale bereko Barne Medikuntza Saila eta beraren Osasun Arloaren burutza eramango ditu, lehiaketa-oposizio bidez lorturiko lanpostu izanik.

Azkenik bere lan ibilbidean, Miguel Servet Unibertsitate Ospitalean Barne Medikuntzako zerbitzu burua da, 2005ko urritik.

Ez dira urri bere lanbideari dagozkion antolaturiko eta eskainitako hitzaldi, argitalpen eta ikastaro. Hona hemen gaingiroki:

100 txosten baino gehiago estatu mailako biltzarretan.

12 txosten nazioarteko biltzarretan.

71 argitalpen estatu mailako aldizkarietan.

5 argitalpen atzerriko aldizkari espezialitatuetan.

100etik gora ikastaro eman ditu.

20tik gora ikastaro antolatu.

9 libururen egilea da.



## 6. ITZIAR AGIRRE OLORIZ

Azkenik, amai dezagun Agirretarren aipamen hau oraingoz atzena dugun mediku soka emankor honen izena aipatzen. Itziar Agirre Olondriz 1975ko maiatzaren 16an jaio zen eta arestian biografiatu dugun Ziriakoren alaba dugu. Leioan Euskal Herriko Unibertsitate publikoan medikuntza ikasi ondoren, radiodiagnosian egin zuen espezialitatea. 2005. urtean doktoradutza lortu zuen *cum laude* Euskal Herriko Unibertsitatean bertan bularreko minbiziaren gaineko tesiagatik. Gaur egun arestian aipaturiko radiodiagnosi lanetan dihardu Galdakaoko eritetxean.



Ziriako eta Itziar, aita-alabak Euskal Herriko Unibertsitateko ospakizun batean.